


arteka



**NAZIOA ETA
ESTRATEGIA
NAZIONALISTA**

GEDAR

— **N**azionalismoaren kontraesan guztien funtsa *babesten* omen duena beste helburu batzuetarako bitarteko soil bihurtzean datza. Nazionalismoa, bere burua biztanleriaren espektro zabaletan hizkuntza bezalako ezaugarri bereizgarriei lotutako izate nazional baten defendatzaile gisa justifikatzen duena, euskara komunitate aske batean etorkizuneko ondasun baliagarria izatea bermatzen duen estrategia komunista baten aurka dago aurrez aurre

Edulikia

6

10

28

44

EDITORIALA

Arteka

**Nazionalismoaren
antinomiak**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Nazionalismoaren
genealogiak**

KOLABORAZIOA

Paul Beitia

**Hausturak batasunean:
kultura nazionalaz eta
klase-borrokaz**

ERREPORTAJEA

Dani Askunze

**Euskal nazionalismo
tradizionalaren iturriak
eta korronteak**

Nazionalismoaren antinomiak

Editoriala

Euskararen auzian zer proposatzen dugun galdetu zaigu sarri, euskararekiko gure axolagabekeria agerian utzi nahian bezala. Ematen duenez, gure komunikabideetan eta gure jarduera politikoa duen presentzia nagusia ez da nahikoa zalantza argitu ez eta bazterrak nahastu zein ebidentzia desitxuratu nahi duenarentzat. Are gehiago, gure proposamena behin baino gehiagotan azaldu denean, modu orokorrean: erreprodukzio soziale-rako bitartekoen gaineko kontrola –horien artean euskara, eratze kolektiborako tresna gisa– bere kolektibizazio komunistak baino ezin du gauzatu. Hori horrela ez bada, bitarteko hori edo bestea irautea gizarte kapitalistan duen benetako balioaren araberakoa da, eta hori gainbalioa ekoiztean edo bere ekoizpenean laguntzean datza.

Hori dela eta, euskararekiko dugun jarreraren inguruko burutapenek ahalegin handiagoa eskatzen dute gure solaskideen aldetik. Horrek gure asmoen inguruko espekulazioan ez oinarritzea dakar, errealitatea burugogorra baita eta, hain zuzen ere, euskara erabiltzea baita kontua, asmoa edozein dela ere –gai horretan suspentsoa dute nazionalistek, eta horrek azaltzen du gauzak nahasteko duten zaletasuna–. Problematika guk planteatu bezala lantzea ere badakar, guri erantzun nahi bazaigu bederen, bai eta erantzun arrazoitua emateko gai izatea ere.

Ez dugu planteatzen, beraz, euskara edo balio komunitario jakin batzuk defendatu beharko genituzkeen. Beldur hori konplexuz beteta dagoenari dagokio soilik. Aitzitik, euskara eta balio horiek nola defendatu edo iraunarazi planteatzen dugu. Eta ondorioztatzen dugu, gainera, nazionalisten planteamenduak ezinean dabiltzala zeregin horretan.

Hori esanda, pilota euskal nazionalismoaren teiltuan dago –aspaldidanik gainera, gu zorabiatzea afizio izan arren–, zeinak bere *antinomie*i aurre egin behar dien. *Antinomia* horiek ez dira bereak bakarrik, estaturik ez duten edo estatu bihurtzeko prozesuan dauden nazionalismo guztiek dituzte propio; hau da, balio-kate kapitalistentzat, edo, hobeto esanda, kapital handientzat eta estatuentzat esparru baliagarri gisa eratzeko, nazionalismoak proiektu politiko gisa duen ahultasunari dagozkio *antinomia* horiek. Hala ere, gure azterketa-esparruari dagokionez, euskal nazionalismoa erabiliko dugu erreferentzia gisa.

Estaturik gabeko nazioen nazionalismoaren kontraesan guztien funtsa –eta nazionalismo horri buruz ari gara bere planteamenduetan kontraesankorrena delako, estatu bilakatutako nazionalismoak ez baitu bere burua justifikatu beharrik; baita azpiratuaren ezaugarri herrikoi bereizgarriak dituelako ere, hala nola hizkuntza-komunitate batean oinarritzea, itxuraz bada ere–, *babesten omen duena beste helburu batzuetarako bitarteko soil bihurtzean* datza. Nazionalismoa, bere burua biztanleriaren espektro zabaletan hizkuntza bezalako ezaugarri bereizgarriei lotutako izate nazional baten defendatzaile gisa justifikatzen duena, euskara komunitate aske batean etorkizuneko ondasun baliagarria izatea bermatzen duen estrategia komunista baten aurka dago aurrez aurre.

Horrek erakusten du nazionalismoak euskara beste helburu jakin batzuen alde erabiltzen duela. Helburu horien artean ez dago Euskal Herriaren askatasuna, hau da, gizarte komunista batean proletargoaren boterea, bere diktadura, gauzatzea eta burutzea; alderantziz, bere helburua euskal errepublika gauzatzea da, non gizarte kapitalistak iraun behar duen.

Ez dugu planteatzen euskara edo balio komunitario jakin batzuk defendatu beharko genituzkeen. Beldur hori konplexuz beteta dagoenari dagokio soilik. Aitzitik, euskara eta balio horiek nola defendatu edo iraunarazi planteatzen dugu. Eta ondorioztatzen dugu, gainera, nazionalisten planteamenduak ezinean dabiltzala zeregin horretan

**Nazionalismoa botere-
forma baten eratze-
bitarteko bat da,
sentimendu nazionalaz
eta haren osagaiez
baliatzen dena; horien
artean hizkuntza
nabarmentzen da**

Arteka-ko 23. zenbakian adierazi dugun bezala, egoera horretan *euskara ez da masa-bitarteko bihurtzen, euskal klase ertain abertzale baten pribilegioa betikotzeko bitarteko klasista* baizik. Horregatik, nazionalismoak bere helburuan huts egiten du... edo agian ez. Azken finean, nazionalismoa botere-forma baten eratze-bitarteko bat da, sentimendu nazionalaz eta haren osagaiez baliatzen dena; horien artean hizkuntza nabarmentzen da. Eta, hain zuzen ere, horregatik, nazionalismoak, bere hedapen kontraesankorrean, hizkuntza propio bat izateari uko egin diezaioke hemen edo han, edo hizkuntza hori masa handietatik bereizi, horrek bere estrategia estatalista garatzeko aukera ematen badio. Horixe baita kontua.

Hemen, gure ikuspegiaren arabera desberdinak diren bi prozesu erlatiboki bereizten ari gara. Alde batetik, komunitate nazionalak daude, oinarrian, jarduera komun batetik eratorritako pertenezia-komunitate gisa. Bestetik, nazionalismoa dago, botere-forma moderno bat egituratzeko komunitate horren oinarrizko printzipioak barne hartzen dituen estrategia gisa, ordura arte nolabaiteko batasun nazionala osatzen zuen komunitatearen kalterako.

Ez da gure helburua benetako existentzia zailantzan jartzea, ezta historiaz baliatzea ere nazioak asmakizun bat direla ondorioztatzeko, historikoki garaile izan diren nazionalismoek estaturik gabeko nazioei erreferentzia eginez egiten duten bezala. Egia da nazionalismoa, bere hedapen historikoaren prozesuan, nazio jakin bat estatu bilakatzea edota beste lurralde batzuetara hedatzea izan dela, eta, nolabait esateko, nazio horren erraietatik nazio berri bat eratzea. Baina hori ez da komunitate bati forma berria emateko prozesu bat besterik; komunitatea aurretik existitzen da, eta komunitateko kide izateko borondatea ere bai.

**Nazionalismoaren berritasuna
lehendik zeuden nazioak edo
komunitateak eratutako botere
berriaren arabera, hau da,
Kapitalaren eta kapitalisten
boterearen arabera birformulatzea
eta erreformatzea da. Prozesu
hori estatu-nazio independenteak
egituratzean datza, monarkiaren
edo errepublikaren forman,
prozesu horien baldintzatzaile
historikoen arabera**

Nazionalismoaren berritasuna lehendik zeuden nazioak edo komunitateak eratutako botere berriaren arabera, hau da, Kapitalaren eta kapitalisten boterearen arabera birformulatzea eta erreformatzea da. Prozesu hori estatu-nazio independenteak egituratzean datza, monarkiaren edo errepublikaren forman, prozesu horien baldintzatzaile historikoen arabera.


Era berean, nazionalismoak justifikazio berrietan oinarritutako gatazka berriak asmatzen ditu. Kapitalismoaren historiaurrean gatazkak bazeuden ere, gatazka horiek arrazoi sozial desberdinengatik gertatzen ziren, eta ez ziren defentsa nazionalarekin justifikatzen. Nazionalismoak, aldiz, gatazka guztiak nazioaren defentsan oinarritzen ditu, Lehen Mundu Gerraz geroztik ikusi den bezala.

Estatutik gabeko nazioen nazionalismoan bixiena hau da: gerra langileak burgesia jakin baten boterearen defentsara txertatzea ahalbidetzen duen nazioaren handitasuna justifikatzeko estatu handien bitartekoa den heinean, estatutik gabeko nazioen nazionalismoaren asmo bakarra estatu bat gehiago bihurtzea da. Horren ondorioz, nazio bat handi egin nahi dutenek, beren hiritarrak bigarren mailako bihurtzen dituen prozesu batera biltzera etsitzen dituzte: hau da, beren nazioa «aldatzera», mundu osoa aldatu beharrean.

Horregatik, komunistek defendatutako benetako independentziari, euskal proletalgoaren emantzipazioan eta proletalgo iraultzailearen nazioarteko estrategiarekiko loturan oinarritzen dena, hitzak eta ezer gutxi gehiago eskaintzeko ez duen independentzia formal hutsa kontrajartzen diote, euskal klase ertainak euskal proletalgoaren eta mundu osokoaren esplotazioaren gainean dituen pribilegioen baieztapena besterik ez dena. Nazionalismoa helburu horiek lortzeko bitarteko desiratu bilakatzen da, eta nazioa edo ezaugarri bereziak dituen komunitatea, estrategia nazionalista justifikatzeko bitartekoa. ●

Nazionalismoaren genealogiak

Testua — **Arteka**



Gizakiak izaki sozialak dira eta, horrenbestez, beren bizitza erreproduzitzeko komunitate-forma jakin batzuetan garatzen dira.

Komunitate horien guztien muina bizitzaren erreprodukzioa izanik ere, haien forma aldatu egiten da denboran eta espazioan. Horrela, historian zehar hiri-estatuak, markak, printzerriak, kalifa-herriak, erresumak, inperioak, komunak, familia patriarkarrak, feudoak, estatu modernoak, tribuak eta bestelakoak existitu direla ikus daiteke. Horien artean nazioaren kontzeptu modernoa aurki dezakegu, ez dena betidanikoa.

Beraz, metodologikoki argi jokatu behar dugu, Eric Hobsbawm historialariak ohartarazten duen legez, ez nahasteko klase nagusien literatura –garai haietatik ezagutzen den bakarra– eta haiek barne hartzen eta menderatzen zituzten komunitateen kontzientzia.

I. NAZIONALISMOAREN JATORRIA

Ez da kasualitatea nazionalismoa ekoizpen-harremak nek gizarte-antolaketa berri bat eskatzen zuten une historiko batean jaio izana, administrazio-unitate zatikatueta banatuta egotea baino zerbait egokiagoa eta estatu-nazioaren sorrera gai-ordenan jarri zirenean. Europako gizarte feudalen errailetatik klase bat sortua zen, zeinaren interes korporatiboak nabarmen egiten zuen talka gizarte feudalen lurralde- eta politika-printzipioekin. Klase hori burgesia zen, erregimen feudalaren sabelean hazia, hirietan eta burguetan. Bitartean, manufakturak, iraultza burgesaren eragileak, Antzinako Erregimenaren parte gisa biziraun zezakeen, une horretan zuen ekoizpen maila baxuari esker. Ordurako, burgesiak botere ekonomiko nahikoa metaturik izateaz gainera, aristokrazia bere interesen alde lerratzeke nahikoa gaitasun ere bazuen, eta, Erregimena hazkunderako oztopo bihurtu bezain pronto, kapitalaren metaketarekin bat zetorren gizarte berri baten oinarriak ezartzeko lan ideologiko eta politikoari ekin zion.

1.1 Nazioa proiektu zibiko eta kosmopolita gisa

Ez da harritzekoa iraultza burgesak, espiritualki zein politikoki, kosmopolita izaera hartu izana hasiera batean. Ingalaterran, 1776an, *The Wealth of Nations* («Nazioen Aberastasuna») idatzi zuen Adam Smith-ek. Harentzat nazioa biztanleak biltzen zituen lurralde bat besterik ez zen, zeinaren ekonomia ekoizpen-harreman egonkorrek arautzen zuten. Baina Smith-ek ez zuen naziorako lurralde-proiekturik, haren ekonomia politikoak nazioarteko truke askea defendatzen baitzuen ekonomia motor gisa. Nazioarteko komunitate horren oinarritzko unitatea bere irabaziak arrazionalki maximizatzen zituen enpresa edo norbanakoa zen. Nazioa –Smith-entzat herrialde edo lurralde-estatua bezain laxoa zen kontzeptua– muga bat zen garapen ekonomikorako lurralde-aspirazio bat baino gehiago, nahiz eta Smith ez zegoen ekonomia gainera gobernu-funtzio jakin batzuk hartu behararen aurka. Britainia Handian, beraz, nazioak ez zuen programa izaerarik hartu; aitzitik, pixkanaka, ekoizpen-harreman kapitalistek aurrera egiteko beharren arabera berregiten ziren erakunde feudalen bidez eraiki zen. Ellen Wood-ek esanetan, historia anglosaxoi modernoan kohesio nazionala «Estatuaren» idearen arbuioaren eta ikur monarkikoaren biziraupenaren bidez bermatuta da ^[1].

Aldiz, nazio-eraikuntzaren proiektuan iniziatiba praktikoa izan zuen mugimendu politikoak –paradigmatikoki Rousseau eta jakobinoen bidez gorpuztuak–, liberalismo ingelesaren proiektuaren aurrean –hark ez zuen nazioa positiboki baloratzen– nazioaren kontzeptu iraultzaile-demokratikoa defendatzen zuen. Jakobinoentzat nazioa komunitate politiko bat besterik ez zen, eta haren subiranotasuna herriarengan zegoen. Beraz, herri subiranoa zen nazioaren funtsa, eta ez hizkuntza, «etnia» edo proiektu politikoaren aurreko beste edozein tasun

objektibo, geroago nazionalismoak jasoko zuen bezala. Horregatik, nazioaren ulerkera iraultzaile-demokratikoa ezin da propioki nazionalismotzat jo; egokiagoa da *abertzaletasun jakobino* izendatzea. Hobsbawnek dioen legez, «"nazio" iraultzaileari ezin diogu nazio-estatuen sorreratik eratorritako programa nazionalistaren antzik eman, hots, nazio iraultzaileak ezin ditu XIX. mendeko teoriariek hain sutsuki eztabaidatutako irizpideak barne hartu, hala nola, "etnikotasun, hizkuntza, erlijio, lurralde eta oroitzapen historiko komunak"» ^[2]. Besteak beste Marsilio de Padua eta Maquiavelok (ospe handikoak, biak ere) markatutako tradizio errepublikarrari jarraituz, Rousseauk honako hau adierazi zuen *El contrato social* (1762) («Kontratu sozialaz») lanean: «Herriar bakoitzak bere burua aberriari emateak menpekotasun pertsonal erabatekoa ziurtatzen dio; baldintza hori amarru eta makina politikoaren jokoa da, eta konpromiso zibilak zilegi egiten dituen bakarra, hura gabe konpromiso horiek zentzugabeak, tiranikoak eta gehiegikeria handien mendekoak izango bailirateke» ^[3]. Beraz, itun honen izaerari jarraikiz, «subiranotasun-egintza orok, hau da, borondate orokorraren egintza autentiko orok, hiritar guztiak berdin derrigortzen eta laguntzen ditu; hortaz, subiranoak nazioaren gorputza soilik ezagutzen du, eta ez du hura osatzen duen inor bereizten» ^[4]. Nazioa lurralde bateko hizkuntzak eta kulturak subiranotasun komunezko proiektu batean –demokrazian– batzen zituen komunitate politikoak izango zen, non alde guztiak aitortzen ziren. Teorian, helburu hori ez zuten eragozten, batetik, «hizkuntza nazional» bat izendatzeko eskakizunak –frantsesa kasu, zeinaren bidez herritarren betebeharrak eta eskubideak gauza zitezkeen– ez, bestetik, hezkuntza nazionalismoaren «erlijio» zibikoan emateak, zeinak Estatuarekiko obligazio-sentimendua sortzeko eta beste interes batzuk ezabatzeke edo baztertzeko helburua baitzuen.

**Nazio-eraikuntzaren
proiektuan iniziatiba
praktikoa izan zuen
mugimendu politikoak
–paradigmatikoki
Rousseau eta jakobinoen
bidez gorpuztuak–,
liberalismo ingelesaren
proiektuaren aurrean
–hark ez zuen nazioa
positiboki baloratzen–
nazioaren kontzeptu
iraultzaile-demokratikoa
defendatzan zuen**

Orduan, frantziar iraultzaileentzat, herria ez zen eraikitako nazioaren aurrekoa, baizik eta herri subiranoa eta nazio politikoa (edo jakobinoentzako nazioa soilik) elkarloturik zeuden. Bestela esan, nazio-estatua eta herri subiranoa elkarrekin jaiotzen ziren eta Estatuaren aurrean ez zen naziorik, gizarte zibila baizik. Ondorengo nazionalismoak, aldiz, nazio-herria, naziotasuna, Estatuaren eraketaren aurrekotzat jotzen zuen, eta, beraz, Estatua nazionalitate ororen eskubide gisa aldarrikatzen zuen.

1.2 Nazioa kultura-proiektu gisa

Alemania betidanik izan da frantsesen urratsak atzerapenez jarraitu dituen herrialdea, eta, bertan ere, XIX. mendearen hasieran bateratze nazionalaren beharra sortu zenean, hezkuntza zibikoaren terminoetan planteatu zen. Hala ere, Alemaniak ez zuen nazioa ordezkia zezakeen herri iraultzailerik; aitzitik, Erromantizismoak irudikatutako erreakzio anti-frantses anti-napoleonista bat garatu zuen (1806an Jenan prusiarrek Napoleonen aurka porrot egitearen ondorioz). Alemaniako nazio-proiektua klase ertain ikasien zirkulu intelektual txikietara mugaturik zegoen, zeinek mugimendu kultural baten forma zuten (Herder, Novalis, Savigny, eta abar). Gizarte mailan, berriz, aleman gisa identifikatzea kultura- eta hizkuntza-auzia zen, baina ez nazio-auzia. Kultura-mugimendu hori hezkuntza erreformatzeko proiektu politiko bihurtu zen J. G. Fichteren eskutik. Mundua nazioetan zatitzea zinez banaketa naturala zen germanistentzat, baina mundura komunitate nazionalaren bidez sartzeak ezaugarri kultural alemanak hondatzen zituela uste zuten; pentsalari haientzat, ezaugarri horiek definitzen zuten Alemania nazio gisa, hizkuntzak batez ere. Horren aurrean, Fichtek bere *Discursos a la Nación Alemana* («Diskurtsoak nazio alemaniarrarentzat», 1808) lanean hezkuntza mota berri bat proposatu zuen, ez soilik gizatasunean oinarritua, baita nazionalismo kultural alemanean ere. «Orain arte ohikoa izan den hezkuntzak, asko jota, ordena ona eta moralitasuna bultzatu ditu, baina bizitza errealerako ez du fruiturik lortu aholku horiekin», adierazi zuen, eta horrela, haren ustez, hezkuntza berriak «gai izan behar zuen bizi-emozioak eta bizi-bulkadak modu seguruan, hutsik egin gabe eta arau batzuen arabera zehaztu eta prestatzeko», halako molde, non alemaniarrek *germanitatearekiko* maitasun ukaezinean heziko ziren, nazio alemanaren ezaugarri partikularrekiko maitasunean. Honela definitu

Mazzinik klaseen arteko harmonia bilatzen zuen Jainkoak arautzen zuen eta Naturan positiboki identifika zitekeen komunitatean, zeina Estatu batean gorpuztu behar zen. Estatu hori, arlo ekonomikoan, «kapitalaren eta lanaren batasuna esku beretan» izatean funtsatu behar zen, eta arlo politikoan, «botoa, hezkuntza, lana» lema zuen oinarri

zuen nazioa: «elkarrekin bizi diren gizakiak, fonazio-organoetan kanpo-ko eragin berberak jasaten dituztenak eta hizkuntza etengabeko komunikazioan garatzen jarraitzen dutenak». Izan ere, Fichteren arabera, «gizaki horien bitartez baino ezin izango zuen nazio alemaniarrek iraun, bestela, halaberharrez, atzerriarekin bat egingo bailuke»^[5]. Bistakoa denez, Ingalaterrako ekonomia politikoaren kosmopolitismoari eta Frantziako nazionalismo iraultzaile-demokratikoari Alemaniako nazionalismo linguistiko-kulturala gehitu zitzairen. Unibertsalismo ilustratuak markatutako nazionalismoaren aurrean, proiektu partikularista erromantikoa bat aurkeztu zen.

Lehenengo aldiz 1830eko hamarkadan birformulatu zuten nazio kontzeptua, zehazki Giuseppe Mazzini italiarraren pentsamoldeak, «naziotasunaren printzipioa» eratzearekin batera. Printzipio horren arabera, «nazio bakoitza Estatu bat da, eta nazio bakoitzak Estatu bakarra behar du». Mazzinik, «Europa gaztearen» edo «nazionalitateen Europaren» bultzatzaileak, mugimendu partikularren bitartez –hala nola *Italia Gaztea*, *Suitza Gaztea*, *Polonia Gaztea*, etab.–, Estatuaren buru jartzen zuen, ez gizarte zibila, baizik eta nazioa, «bakar, zatiezina» gisa, ezaugarri kultural komunez eta «ibaien bideen eta mendien» bidez «naturak ezarritako» lurralde-mugez osatua.

Ondorioz, bere proiektu politikoa penintsulako erresuma eta estatuetakozatiketa gaindituko zuen Italiako errepublika batu batean zetzan: «Aberriak, beraz, Gobernu bakarra izan behar du. Beren burua federalistatzat daukaten politikariek, Italia estatu ezberdinen anaitasun bihurtu nahi duten horiek, Aberria zatitzen dute, eta horregatik, ez dute Batasunaren kontzeptua ulertzen». Eta Italiatik kanpo, «Europako geografia politikoa zaharberritzeko» aginduari jarraikiz, Europa hamabi estatu subiranotan banatu zuen. Mazzinik Gizateriaren batasuna bilatzen zuen, desadostasunaren eta interes indibidual berekoiaren gainetik. «Ez esan: “ni”, esan ezazue “gu”», zioen italiarrek, bi «izurriteen» aurka irmo eginez: makiavelismoa eta materialismoa, gerora, 1860 inguruan, «Italiako gizarte-klase guztiak kutsatu zituzten» horien kontra. Hau esan zuen bi horietaz: «Lehenengoak, Dohakabe Handi baten jakintzaren moztarrotu zitalak, maitasunetik eta Egiarenganako gurtza garbi eta leialki kementsutik urruntzen zaituzte; bigarrenak, berriz, interesak, berekoikeria eta anarkia gurtzera eramaten zaituzte ezinbestean»^[6]. Ez dago zalantzarik Mazziniren pentsamenduak, materialismoaren aurka, interes partikularren eta Gizateriaren interes orokorraren arteko harmonia bilatzearen alde egiten zuela, Jainkoak gizakiei emandako komunitatearen

bitartez: Herria edo Aberria. Hortaz, bere pentsamendua burges txikia zen batik bat; horrela kalifikatu zuen Marxek Mazziniren programa, R. Landorri eskainitako elkarrizketa batean, hain zuzen ere esan baitzuen «klase ertaineko errepublika baten ideia zaharra baino ez» zela^[7]. Ez da harritzekoa ia mende bat geroago Mussolini eta Gentile gisako pentsalariek Mazzini inspirazio gisa hartu izana. Gainera, hark gogor gaitzetsi zituen proletario frantsesen ekintzak, batez ere Paris-ko Komunarenak. Ondorioz, Marxen aldetik ez ezik, Bakuninen eskutik ere kritika gogorrak jaso zituen. Laburbilduz, Mazzinik klaseen arteko harmonia bilatzen zuen Jainkoak arautzen zuen eta Naturan positiboki identifika zitekeen komunitatean, zeina Estatu batean gorpuztu behar zen. Estatu hori, arlo ekonomikoan, «kapitalaren eta lanaren batasuna esku beretan» izatean funtsatu behar zen, eta arlo politikoan, «botoa, hezkuntza, lana» lema zuen oinarri. Lorpen horren ondorioz baino ezin zitekeen pentsa «Europako herri guztien anaitasun» batean^[8]. Klaseen gainetik zegoen komunitate hori nazioaren *komunitate asmatua* zen, eta ondorengo nazionalismo ororen bilakaera nazionalismo mazziniarraren oinarri idealista eta burges txiki horien eskutik etorri zen.

1.3. Eliteen nazionalismotik masa-nazionalismora

Ordura arte, nazionalismoa Europako elite ikasi eta kultuen fenomeno besterik ez zen izan, eta ez zuen zerikusirik «herriaren milaka urteko desira» ustezko batekin. Alabaina, klase herrikoien artean beste komunitate mota batzuekiko leialtasuna zen nagusi, familiako patriarka, jaun edo elizgizon gisako figurek ordezkatzeko zituztenak. Lurraldearekiko loturan zetzan komunitate bateko kide izatearen sentimenduren bat egotekotan, *patria chica* edo *aberri txiki* arekiko sentimendua zen hori, nazio modernoarekiko desberdina erabat. Eta nahiz eta komunitate-bizitzarako hizkuntza komun bat beharrezkoa izan, ez hizkuntzak ezta jatorri-taldeak ere ez zituzten komunitate horiek nazional egiten, nahiz eta ohikoa izan Europako gizarteetan elkarbizitzan egotea *herri-hizkerak* (klase plebeioen eguneroko bizitzaren jakintzarako), *hizkera jasoak* (aristokraziarentzako, nobleziarentzako eta errege-erreginentzako) eta latina eta antzeko hizkuntza unibertsalak (teologiarako eta zientziarako). Hala ere, ikusi dugun bezala, ekoizpen kapitalistak, bere interesak erdiesteko, komunitate txiki horiek eta haien hizkuntzen izaera sakabanatua baino zerbait gehiago behar zuen. Era berean, lan-indarra mende-kotasun pertsonaletatik askatzeko eta sortzen ari zen lan-merkatuan merkantzia «libre» gisa aurkezteko forma politikoa eskatzen zuen. Nazio proiektu hori gutxieneko garapen kapitalista zuten Europako gainerako eskualdeen ibilbidea definituz joan zen, eta horietan, emulazioz, baina baita erreakzioz ere, proiektu hori nazionalismoaren ikuspegitik planteatu zen, Alemaniako eta Italiako kasuekin ikusi dugun bezala.

Nazionalismoak gizabanako libere-laren autonomia eta askatasuna kolektibo zatietan bati transferitzea ahalbidetzen zuen, nazioari, alegia. Horrela, burgesiak bere interes partikularrak herriari interes orokor moduan saltzen zizkion. Hasieran, kapitalak muga jakin batzuen baitan arautu beharreko lan-indarraren marko homogeneizatzailerako jardun zuen, hura metatzeko lurralde-esparru bat ezarri eta klase guztiak *herriar* gisa formalizatuz. Horrek ez du esan nahi nazio-estatuak eratzeke orduan lurralde bakoitzean giza bizitzak aldeztu aurretik hartutako idiosinkrasia berezi eta bereziekin garrantzirik izan ez zutenik, hala nola hizkuntzak, erlijioak, folkloreak, mitologiak eta abarrek. Aitzitik, ezaugarri historiko partekatu horiek bere onuran erabili eta mobilizatu zituen kapitalak, maila, forma eta erritmo ezberdinetan baina mundu osoan goratzen ari zen oinarri batzuk sortzeko proiektu politiko klasista bat herriak babes zezan.

Beraz, identifikazio hori ez zen indarra hartzen hasiko XVIII. eta XIX. mendeetara arte: lehenik gutxiengo baten mugimendu intelektual gisa, baina, ondoren, masa-mugimendu bilakatuz. XIX. mendetik aurrerako historia, beraz, nazioen historia izango da. Izan ere, 1848tik 1870eko hamarkadara bitarteko aldia nazio-estatuaren Europa sortu zenekoa da: lurraldeak bateratu nahi ziren, eta, horretarako, haietako biztanleek minimoki onartuko zituzten irizpideak ezarri ziren. Alabaina, nazionalismo ezberdinen artean eztabaidak izan ziren nazio baten izaera, mugak eta hedadura zehazteko orduan, eta nazio-estatuaren sorrera hori ez zen, inondik inora, modu garbi edo bake-tsuan gauzatu: «Italia eta Alemania Savoia eta Prusiako erresumen pean batu ziren; Hungariak estatu-zuzendaritza propioa lortu zuen 1867ko Konpromisoaren bidez; Errumania bi "danubiar printzerriek" bat egitetik bihurtu zen Estatu»^[9]. Europatik kanpo ere hartu zen nazio-erakuntzaren ibilbidea, Estatu Batuetako gerra zibilaren edo Japoniako Meijiaren berrezarpenaren adibideek erakusten dutenez.



Nazio-komunitatea islatu nahi zen lurralde horietako askotan nazioa eraikuntza ideologiko bat besterik ez zenez, leku askotan Italian jazotako bera gertatu zen: «bateratzearen unean, 1860an, kalkulatu zen biztanleen % 2,5 baino gehiagok ez zuela italieraz hitz egiten bizitzako eginkizun arruntetan». Massimo d'Azegliok argi adierazi zuen 1860an nazionalisten betebeharrak politikoa, bere bertsio italiarrean, hurrengoa oihukatu zuenean: «Italia egin dugu; orain italiarrak egin behar ditugu». Horratx, uniformetasun nazionala sortu behar zen


Garai hartako borondate politikoa, beraz, nazio-estatu subiranoak sortzea izan zen, nahiz eta herrietan oso argi ez egon ingelesa, alemana, frantsesa edo espainiarra izateak zer esan nahi zuen. Hau da, «edozein "nazionalismoaren" oinarria berbera zen: jendeak bere nazioarekin emozionalki identifikatzeko eta txekiar, alemaniar, italiar edo beste edozer gauza moduan mobilizatzeko borondatea izatea, zeina politikoki ustiatu zitekeen grina baitzen». Helburu hori, neurri batean, «politikaren demokratizazioari esker lortu zen, bereziki hauteskunderi esker»^[10]; izan ere, nazioko biztanleak mobilizatzeko zituen Estatuko bizitza publikoan integratuz. Ziur aski, nekazariak eta proletarioak nazionalizatzeko, ez zen izan gerrarako militarizazioa eta mobilizazioa baino bitarteko politiko eraginkorragorik, baina hori erraztu zuten oinarri materialak askotarikoak izan ziren: Pragako Antzoki Nazionala (1862), Sokol gimnastika-klubak (1862), unibertsitateak, bigarren hezkuntza... Hezkuntza-instituzioek hainbesteko garrantzia hartu zuten, ezen 1870 eta 1914 arteko garaia markatu baitzuten; gainera, trenbide edo telegrafoaren gi-

sako komunikazio-bitartekoek ere berebiziko eginkizuna bete zuten lotura nazional gisa. Ildo beretik, XIX. mendean erolden garaia ere izan zen; horien bidez, estatuak biztanleen kontabilitate-gaitasun nahiko zehatza garatu zuten. Azken batean, nazio-komunitatea islatu nahi zen lurralde horietako askotan nazioa eraikuntza ideologiko bat besterik ez zenez, leku askotan Italian jazotako bera gertatu zen: «bateratzearen unean, 1860an, kalkulatu zen biztanleen % 2,5 baino gehiagok ez zuela italieraz hitz egiten bizitzako eginkizun arruntetan»^[11]. Massimo d'Azegliok argi adierazi zuen 1860an nazionalisten betebeharrak politikoa, bere bertsio italiarrean, hurrengoa oihukatu zuenean: «Italia egin dugu; orain italiarrak egin behar ditugu». Horratx, uniformetasun nazionala sortu behar zen.

Hain izan zen indartsua politika klabe nazionaletan egiteko joera, ezen, hemeretzigarren mendeko sozialismoa mugimendu teorikoki internazionalista izan arren, internazionalismo hori proiektu positibo nazionalarekin bizikidetzan garatu baitzen askotan. Parisko Komunako gertakariak, adibidez,

bere egin zuten jakobinoen nazionalismoaren zati handi bat; hainbestearino, non, Marxek, nazionalismoaren etsai sutsu izanik, *La Guerra Civil en Francia* («Gerra Zibila Frantzia», 1871) lanean idatzi baitzuen Komunaren asmoa ez zela «nazioaren batasuna suntsitzea, baizik eta, kontrara, nazioa erregimen komunal baten bidez antolatzea eta hura errealtate bihurtzea, batasun hori hezurmamitu nahi zuen Estatua- ren boterea suntsituz»^[12]. Hori guztia, kontuan izanik Marxentzat eta Rousseauentzat nazioa herri subiranoaren baliokidea zela, eta ez ezaugarri kultural edo linguistikoen multzo bat. Era berean, «Liebknecht eta Bebel marxista sozialdemokrata alemaniarrek beren aldeko babesaren zati handi bat 1848ko nazionalismo erradikal-demokratikoa- ren alde egindako deialatik lortu zu- ten, zeina, era berean, programa nazio- nalaren bertsio prusiarraren aurkakoa zen»^[13]. Internazionalismoaren eta nazionalismoaren arteko bizikidetzak horrek, alabaina, miseriaren gailurra joko zuen mugimendu sozialistaren baitan, aski ezaguna den bezala, sozial- demokraziak Gerra Handiko kredituak onartu zituen.

**Oro har, bai nazio-estatu
finkatuek, bai Estaturik gabeko
nazioetako nazionalista
ikasiek ere homogeneousun
nazionala bilatzen zuten.
Alabaina, homogeneousun
hori existitzen ez zenez,
hezkuntza-programa nazional
batean gauzatu behar zen
beti, eta, etniari dagokionez,
deportazioaren, sarraskiaren
edo bazterketaren
forma hartu zuen**



1.4. Nazionalismo etnolinguistikoa

1870etik aurrera, zenbait nazio-estatu berri sortu ziren Europan: Bulgaria (1878), Norvegia (1907), Albania (1913), etab. Gainera, ezarritako estatuen artean, nazio-mugimenduak sortu ziren, hala nola David Lloyd Georgek gidatutako Gales Gaztea mugimendua, euskal mugimendu nazionalista (1894an EAJren sorrerarekin), eta juduen arteko mugimendu sionista, Theodor Herzlek abiarazia. «Etnian eta hizkuntzan» oinarritutako komunitatea eskatzen zuten mugimendu nazionalak eratzeke joera horri *nazionalismo etnolinguistikoa* deitu zitzaion. Era berean, politikagintza nazionalista nagusitzen hasi zen. Ordura arte, homogeneotasun etniko edo linguistikoa-ren ideiak ez zuen zentzu handirik, hizkuntza berean idazten eta irakurtzen zuten gutxiengo baten asmoa zelako, eta ez hitz egiten zutenena. Euskal nekazari txiroenek, euskara historikoki gehien errotu den gizarte-geruza horrek, Euzko Alderdi Jeltzalearekiko (EAJ) irrika txikia agertu zuten, adibidez. Sabino Aranak 1894an sortutako alderdiak «euskal balio tradizionalak» defendatu nahi zituen langile espainiarren «mehatxuzko erasoaldi» baten aurrean, azken horiek ateismoa eta sozialismoa ekarriko baitzuten. Horrelako mugimendu nazionalista gehienekin batera, bereziki hirietako burgesia txikiari lotutako alderdia izan zen EAJ. Horregatik eta beste arrazoi batzuenegatik, ez zen sekula bere hitzaldietan aipatzen zuen *mundu zahar* harekin erabat konektatzera iritsi.

Oro har, bai nazio-estatu finkatuek, bai Estaturik gabeko nazioetako nazionalista ikasiek ere homogeneotasun nazionala bilatzen zuten. Alabaina, homogeneotasun hori existitzen ez zenez, hezkuntza-programa nazional batean gauzatu behar zen beti, eta, etniari dagokionez, deportazioaren, sarraskiaren edo bazterketaren forma hartu zuen. Hobsbawnek argitzen duenez, hasiera batean «izaera etnikoa zuen nazionalismo alemaniarrek aniztasun etnikoa bereganatu zuen. «Alemana» izatea *Stamm* («tribu» edo «jatorri-talde») bateko kide izatearen funtzio bat zen: suaboak, saxoiak, bavariarrak edo frankoak. 1934aren ondoren, suaboa edo saxoia izatea alemana izatearen bigarren mailako ezaugarri bihurtu zen, ez alderantziz^[14]. XIX. mendearen amaieratik aitzina eta gaur egun arte, irizpide etnolinguistikoki hori izan da nagusi nazioa definitzeko.

Argi eta garbi, irizpide etnolinguistikoki ez zuen nazio bat zer den mugatzeko oinarri sendorik: «uniformetasun etnikoa» ameskeria bat zelako batetik, eta, bestetik, berdintasun linguistikoa postulatu hutsa zelako (hortik datorkio programa izaera). Hala, administrazio-lurralde berean hizkuntza asko elkarrekin bizitzeak nazio-identifikazioko arazoak sortzen zituen. Horren muturreko kasua Papua Ginea Berria zen, zeinean bi milioi eta erdiko biztanleriak 700 hizkuntza baino gehiago hitz egin izan baitituen garai batzuetan. Bestalde, kapitalismoaren orokortzearen ondorioetako bat emigrazio-prozesuak izan ziren,

non populazio-oldeek beren «aberrietatik» alden du behar zuten. Fenomeno horrek, bistakoa denez, nazioaren determinazioa «purutasun etnikotik» edo lurralde-ikuspegitik definitzeko zailtasunak ekarri zituen, eta, erreakzioz, nazioaren ikuskera tautologikoa sortu zen XIX. mendearen amaieran: nazioa, «ez biztanleria-nukleo zehatz bat lekukotzen zen mapa-zati bat baltitz bezala, baizik eta beren burua nazionalitate baten partaidetzat zuten gizon-emakumeen taldeei atxikitako kontzeptu gisa, haien bizilekua edozein izanik ere»^[15]. Horien artean, juduak, sionistak eta bundistak zeuden eta autonomia kulturala aldarrikatzen zuten. Printzipio hori austromarxistek jaso zuten, hala nola, Otto Bauerrek eta Karl Rennerrek, eta kritika gogorak egin zizkieten sozialista batzuek, tartean Leninek. Hori dela eta, bere ikuskera hori argitzearren, Rennerrek hau galdetzen zion bere buruari: «Komunitate espiritual eta kultural bateko partaide izateko zein beste irizpide egon daiteke, bertako kide izatearen kontzientziaz aparte?»; eta ondorioztatzen zuen «nortasunaren printzipioak osatu behar dituela arautze oinarriak, eta ez, aitzitik, lurraldearen printzipioak»^[16]. Paradoxikoki, hala ere, lurraldearen irizpidea baliagarria izan zen askapen nazionalen mugimendu batzuentzat, ez lurralde historiko, kultural eta linguistikoki uniforme baten independentzia eskatzen zutenean, baizik eta potentzia inperialak inposatutako lurraldearen independentziaren alde egitean (Aljeria dugu horren adibide).

1.5 Autodeterminazio eskubidea

Ikusi dugun bezala, irizpide nazional objektibo bat finkatzeko saiakerak horiek guztiak alferrikakoak ziren, beti baitzeuden salbuespenak. Horrek, nazio bat zer zen esateko definizio propioa ematera bultzatu zituen marxistak –joera nazionalisten ondorioz espiritu internazionalista galdu ez zuten horiek bederen–. *El marxismo y la cuestión nacional* («Marxismoa eta nazio-auzia», 1913) saiakeran, Stalinek honela definitu zuen nazioaren kontzeptua: «giza komunitate egonkorra, historikoki eratua eta oinarria hizkuntzaren, lurraldearen, bizitza ekonomikoaren eta psikologiaren komunitatean duena eta kultura-komunitate gisa agertzen dena». Alta, «bakarka hartuta, adierazitako ezaugarrietako bat bera ere ez da nahikoa nazioa definitzeko», eta «nahikoa da ezaugarri horietako bat absente egotea, nazioak komunitate izateari utz dakion»^[17]. Hala ere, zabalki aitorturiko nazio asko eta asko ez zetozen bat definizio horrekin, eta objektibotasun saiakera orok porrot egin zuen; hala frogatzen du mende bat geroago marxistek oraindik ados jartzeko dituzten ezintasunak. Objektibotasunetik urrun, beraz, kontzeptu lausoak nagusitu ziren berriz ere, hala nola, psikologia edo «nazio-izaera»; eta, lotura ekonomikoaren irizpideari dagokionez, sostengaezina bihurtzen ari zen gero eta nazioartekoagoa zen ekonomia baten testuinguruan. Baina, «nola liteke bestela, historikoki berriak eta aldakorrek diren eta gaur egun ere unibertsalak izatetik oso urrun dauden entitate batzuk iraunkortasun eta unibertsaltasun egituraren kokatzeko?»^[18].

Nazio bat irizpide objektibo edo «naturaletan» funtsatzeko ahaleginak, nazionalismoak berak uste duen bezala, arazo metodologiko bat dakar; izan ere, ez dago modurik hutsik egin gabe behatzaileari esateko nola bereizi nazio bat *a priori* beste entitate batzuetatik –natur zientzietan espezie batzuk besteetatik bereizteko dugun ziurtasun berberarekin, adibidez–. «Nazioak behatzea erraza litzateke txoriak behatzea modukoa izango balitz», dio historialari marxistak ironiaz^[19]. Horrelako definizio «objektiboekin» bat datozen kasuak gutxi batzuk direnez eta, beraz, definizio horren pean haiek baino ezin direnez *naziotzat* jo, beti existituko da pisuzko salbuespen zerrenda bat, nazioak diren eta ez diren giza taldeak zein diren zehazten duten arau eraginkor eta objektiboak zalantzan jarriko dituen. Eta logikoa da, baldin eta proiektu nazional bakoitzak nazioaren definizioa bere ezaugarrien eta egokitasunaren arabera formulatzen badu. Frederik Barth antropologoak zioenez, «nazio gisako identitate kolektibo bat definitzen duten elementuak ez dira talde bat eta bestea bereizten dituzten eta bere barnean komunean dituen ezaugarri objektiboen multzoa; aitzitik, taldeak balioesten dituenak bakarrik izango dira»^[20]. Elementu horiek ez zuten berez garrantzi identitario eta politikorik; areago, nazionalismoak berak erantsi zizkien balio horiek.

Nolanahi ere, nazioa termino objektiboetan definitu ostean, boltxebikeek irtenbidea eman nahi zioten nazio-auziari, autodeterminazioaren klabeetan hain zuzen. Izan ere, eskubide hori merezi zuten komunitateak definitu behar ziren, «helburu partikularrak lehenesten hasia zen» joera bundistaren aurka^[21]. Sozialismo internazionalistak autodeterminazio-eskubidearekin ez zuen bilatzen nazioen eraketa positiboa, proletalgoaren nazioarteko batasuna baizik. Birgororatuz, autodeterminazio nazionalerako eskubide mazziniarra (zioen nazio bakoitzari, eskubidez, Estatu bat zegokiola) politika burgesaren parte zen XIX. mendearen erdialdetik. Hala, politika *nazioen politika* gisa finkatu zen testuinguru hartan, ohikoa zen proletario asko politika nazionalistan hezi izana, eta horrek, askotan, eragotzi egiten zuen «klase nagusien eta haien gobernuen aurkako borroka bateratuan zetzan langile-klaseen nazioarteko anaitasuna»^[22], Marxek bere *Crítica al Programa de Gotha* («Gothako Programari Kritika», 1875) testuan aurkeztu bezala. Horretarako, «nazio auziaren soluzio proletarioa» boltxebikeek nahi bezala, hau da, Errusian eta Kaukason bezala –«sozialdemokrata georgiar, armeniar, tatariar eta errusiarrek elkarrekin lan egin zuten erakunde sozialdemokrata bakar batean, hamar urte baino gehiago»^[23]– aplikatu ezin zen kasuetan, autodeterminazio-eskubidearen defentsa, alegia, independentzia *politikorako* eskubidea, boltxebikeen kontzesio taktikoa izan zen, naziotasun arrazoiengatik proletarioen artean izandako liskarrak baretzeko egin behar izan zutena. Bestetik, nazio zapalduak aitortzeko modua ere izan zen.

Sozialismo internazionalistak autodeterminazio- eskubidearekin ez zuen bilatzen nazioen eraketa positiboa, proletalgoaren nazioarteko batasuna baizik

Lehen Mundu Gerraren ondoren, 1918an, sendotu egin zen autodeterminaziorako eskubidea, hain zuzen ere, Woodrow Wilson AEBetako presidentek bere herrialdeko Kongresuan zera defendatu zuenean: «Nazioari buruzko xedeak errespetatu egin behar dira; egun, herriak beren onespenez baino ezin dira menderatuak eta gobernatuak izan. "Autodeterminazioa" ez da esaldi soil bat; derrigorrezko ekintza-printzipio bat da» ^[24]. Era berean, ondorengo leninismoaren eta sozialismoaren aldaera gehienek, hala nola maoismoak eta sozialismoaren eraginpeko nazioaskapen mugimenduek, eskubide hori besterenezintzat hartu zuten. Printzipio hori betiko zigilaturik geratu zen nazioarteko politikan, 1945eko Nazio Batuen Gutunean eta 1966ko Giza Eskubideen Nazioarteko Itunetan.

2. NAZIOA, KAPITALAREN KOMUNITATE

2.1 Nazioa, Estatuak, merkataritza eta kapitala

Kapitalismoa historikoki lehenago izan diren ekoizpen-moduetatik be-reizten duena zera da, merkantzien ekoizpen orokortua duela helburu, irabazi bat lortzera mugatzen den heinean. Kapitalismoa garatu ahal izateko beharrezko baldintzak, nagusiki, ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatua, ekoizpen-gaitasunaren askatasun formala eta merkataritzan jarduteko askatasun eta (batez ere) gaitasuna dira. Ordea, XVII. eta XVIII. mendeetako Europako hirietan baldintza horiek modu mugatuan existitzen ziren, konkretuki manufaktura-ekoizpenean eta hirien arteko merkataritza ez guztiz kapitalistan. Izan ere, Europa feudoe-tan, printzerrietan, hainbat motatako jurisdikzioetan, tokiko txanponetan eta gizarte feudalaren berezko beste baldintza batzuetan banaturik egoteak zaildu egiten zuen ekoizpen kapitalis-taren araberrako merkaturaren sortzea, eta beraz, ekoizpen-modu hori bera orokortzea. Zalantzarik gabe, oztopo horiekin amaitu beharra zegoen, zeren, kapitalaren kontzeptua, bere esentzian, mundu-izaeran funtsatzen bazen ere (edo lurralde-mugarik ezean), kapitalismoa Europako eskualde batzuetan bakarrik garatu zen. Horregatik, oztopo administratibo eta komertzial partikularrak gainditzeko lehenengo prozesuek tokian tokiko itxura hartu behar zuten. Aldi berean, baina, ahalik eta forma zabalena izan behar zuten. Azken finean, beharrezkoa izan zen aurretiko figura batzuekiko fidelotasuna desagerraraztea *merkantziaren komunitatearekiko* leialtasuna lehenesteko. Izan ere, berezitasun oro «interes orokor» baten alde homogeneousatu behar zen, hots, *interes nazional* bilakatu zen horrek edozein berezitasunen *gainetik* egon behar zuen. Hala, nazionalismoa kapitalaren programa zen, eta programa horren edukia, nazio-estatuak sortzea.

Hala ere, nazio horien mugen zehaztapenak ezin zuen erabat arbitrarioa izan: gutxieneko irizpide objektibo batzuei men egin behar zien (kulturari, hizkuntzari...). Nazio bat definitzeko bakoitzak aintzat hartzen zituen irizpideak alde batera utzita (eta nazionalistak ez ziren inoiz ados jartzen), ados zeuden komunitate nazionala bera eraiki behar zela. Baina nazioa ez da lurralde jakin batean historikoki egon daitezkeen tradizio eta berezitasun kulturalen baliokide. Nazioa teoria zein praktika politikoan berezitasun horiek guztiak homogeneousatzea da, existitzen den edo eraikitzeke dagoen nazio-estatu burges baten proiektu komunaren baitan, eta nazionalismoa da proiektu hori defendatzen duen pentsamendu-korrontea. Estatu modernoak, ildo beretik, nazio-komunitatea zigortu zein susta zezakeen erakunde politikoa zen –Mazziniren agindua gogoratuz, nazio ororen esku-bidea zen hori–. Dachevskyk adierazi zuen bezala: «Salgaien ekoizleak ezingo luke bere izaera pribatu eta independentea baieztatu bere buruaren epaile gisa jardunda, ezta beste subjektu pribatu eta independente baten ustekabeko aitortpenaren bidez ere; aitzitik, ekoizle pribatuekiko existentzia propio eta independentea duen ordezkari baten aitortpen orokorra eskatzen du: Estatuarena, bera baita besterendutako harreman sozial orokorraren erreproduktzioa hezuramaitzen duena» ^[25].

Horrela, gaur egun ezagutzen ditugun nazio-estatuetara iristen gara. Nazio-estatuaren elezaharra, alde batetik, lurraldean definitutako antolamendu gisa ulertzen da, hura osatzen duen «herriarrendandik» independentea den batasun legislatibo, gubernamental, administratibo eta militarren bidez artikulatua. Aldi berean, herriar multzo hori subiranotasun kolektiboaren adierazpen politiko eratzaile gisa hartzen da, legeak formalki aitortutako eta babestutako eskubide eta betebeharrak

batzuk dituenak. Era berean, Estatuaren Boterea gizartearen gainetik kokatzen da, merkaturako arbitroa balitz moduan: Estatuak zigortzen duen komunitatea da komunitate nazionala, «gizabanako aske eta berdina, kultura-ezaugarri komun batzuek elkartzen dituztenak». Hala ere, Estatuaren nazio-izaera eta nazionalitate ezberdinak Estatu horren baitan elkarrekin bizitzea bi fenomeno guztiz bateragarri dira: izan ere, batzuetan autonomia onartzen zaie nazionalitateei eta, besteetan, Estatuaren homogeneousazioak berak zapaltzen ditu. Are gehiago, nazionalismo mota orok, fikziozko interes-komunitate bat ezartzean, klase-borrokaren estalki ideologiko eta politiko gisa jotzen du, hau da, funtzio politiko zuzena betetzen du proletalgoaren menderakuntzan. Benedict Andersonen ustez, nazioak komunitate gisa irudikatzen du bere burua, zeren, bakoitzaren mugen barruan desberdintasuna eta esplotazioa nagusitzen diren arren, nazioa anaitasun sakon eta horizontaltzat hartzen da beti. Horregatik, nazionalismoak esentzialismora jotzen du gehienetan, eta ukatu egiten ditu gizarte-errealitatean gertatzen diren eboluzio, aldaketa eta antagonismoak, bai historian zehar, bai gaur egun ere. Hala ere, Andersonek nazioaz hitz egiten duenean, uste du iruditeria jabetzen dela gizakien kontzientziaz, eta ez alderantziz, hau da, esaten du iruditeria ez dela kontzientziaz sortzen, gizakiek beren eguneroko jardunean ulertzen dutenetik baizik. Azken batean, aipatutako «anaitasunak» azken bi mendeetan hainbeste milioi proletario termino horietan pentsatutako komunitateen alde sakrifikatzea ahalbide du, hori praktika sozialean nazioak komunitate gisa imajinatu ahal izateko baldintzak existitzearen ondorio da, bai eta proletalgoa, neurri bateraino, komunitate horrekin identifikatu izanaren ondorioz.


***Nazionalismo mota
orok, fikziozko interes-
komunitate bat ezartzean,
klase-borrokaaren estalki
ideologiko eta politiko
gisa jokatzeko du, hau da,
funtzio politiko zuzena
betetzen du proletarioaren
menderakuntzan***


2.2 Nazionalismoaren funtzio politikoa

Okerra izango litzateke, beraz, nazionalismoaren suharra hurrengo arrazoiaren ondorioz gertatu zela ondorioztatzea: ustez ezjakinak, inkontzienteak eta irrazionalak ziren masek beren interesetatik erabat irreal eta haiekiko arrotzak ziren ideiekin liluratuak, engainatuak izan zirela. Hobsbawmen arabera, nazioak «fenomeno dual» gisa ulertu behar dira. Batetik, burgesiaren kapital-metaketaren interesa dute oinarri material eta historiko gisa, hau da, «goitik» eraikiak dira. Baina, beste alde batetik, nazionalismoa analitikoki fenomeno ulertezina izango litzateke guretzat, eta politikoki huts egindako programa burgesiarentzat, baldin eta ez balitu aintzat hartuko (bere erara) pertsona arrunten sinismen, balio, itxaropen eta beharrak. Nazionalismoak gizakiaren historiaren eta kulturaren interpretazio propioa eraikitzen du, eta erantzun partikularra ematen die, besteak beste, «nor gara, zergatik gara, nondik gatoz eta norantz goaz» galderei, zinez funtsezko eta beharrezko diren horiei. Kontakizun horiek kultura-ondarearen benetako elementuen gainean eraiki ohi dira (hizkuntza, historia, tradizioak, etab.). Era berean, elementu horiek nazio-mailan berrinterpretatu eta mitifika-

tu ohi dira, eta horrek aukera sortzen du giza komunitateen nortasun kolektiboan erreproduzitu eta integratu daitezen, arrakasta handiagoarekin edo txikiagoarekin. Sinbolo, irudi eta ohitura berriak sortzen dira, eta beste batzuk ezabatu. Hobsbawmen hitzetan, hori «tradizioaren asmakuntza» baten mende egongo litzateke. Ideologia nazionalista hain dago errotuta gizartean, ezen, edozein hizkuntza- edo kultura-adierazpen nazionalitate jakin baten baitan kokatu behar baitugu. Hala ere, eta egiari zor, ez dago inolako premia-harremanik elementu horien artean: hizkuntzek eta kulturek ez dute nahitaez nazionalitate itxura hartzen; nazio-formak, ordea, hizkuntza eta kultura komuna behar ditu. Beraz, ezin uka daiteke nazionalismoak lehendik zegoen kultura-aberastasuna probesten duela –oso modu selektiboan eta askotan erroretik eraldatuz–. Baliteke hildako hizkuntzak berpiztea, Israelen bezala, edo horrelakorik ez lortzea, Irlandan gertatu zen moldez. «Jatorrizko esentziak zaharberritzen» dituzten tradizioak asmatu edo berrasmatu ditzake, partzialki edo guztiz. Beste batzuetan, tradizio eta hizkuntza zaharagoak ezabatzen ditu zuzenean.

Sozialismoak kultura-aberastasun partikularra emantzipazio unibertsaleko proiektu batean norabidetzen du, eta nazionalismoak kultura partikularra dominazio unibertsalera subordinatzen du, aberastasuna klase nazional jakin batek bereganatzearen bidez





Adibideek erakusten dutenez, eraikitzea historiko modernoaren azterketa bila iraganera jotzea, intelektualki alferrikakoa izateaz gain, politikoki ere klase-zapalkuntzaren konplize da. Egia da nazioaren loraldia disgregazio feudalaren aurkako borroka-aren motorra izan zela une historiko jakin batean, baina orduantxe baino ezin izan zuten proletarioek taktikoki beren alde erabili. Mundua nazio kapitalistetan finkatu zen momentuan, nazioa ez zen zirrikitu feudalen aurkako oposizio-elementu bat jada, are gutxiago gizarte-harreman kapitalistaren beraren etsai bihurtu zen, haren edukia internazionala baita. Are gehiago, nazioak, batasun bat eratzen duten zatiak izatetik, batasun internazionalaren menpe egotera igaro dira egun. Kultura-aberastasuna babesteko modu bakarra eraikitzea, independentzia edo defentsa nazionalen programa positiboa dela pentsarazi nahi digu nazionalismoak, eta, aldiz, nazioaren defentsa kontraesankorra da bere baitan, naziotasuna nazioarteko edukia duen menderatze-logika batean bakarrik baiezta daiteke eta.

Proiektu politiko nazionalista, orduan, besteekiko *independentea* den nazio-estatu propioa eraikitzeko edo defendatzeko atxikimendu kultural, linguistiko eta tradizionala mugiaraztean datza. Nazionalismoa, bada, klase-zapalkuntzaren ideologia bat da, ez bakarrik klaseen gainetik dagoen komunitate «historiko» bat «naturalizat» hartzen duelako, baizik eta, baita ere, komunitate horren independentzia politikoa, hau da, interes interklasista, beste guztiaren gainetik jartzen duelako. Horregatik, sozialismoak eta nazionalismoak proiektu politiko berean elkarrekin egon direnean, bigarrena beti gailendu zaio lehenari, nazionalismoak esplotatzaileen eta esplotatuen arteko lankidetzara *gonbidatzen* duelako, eta, sozialismoak, berriz, zuzenean birrintzen duelako klaseen arteko anaitasun nazional faltsu hori.

Internazionalismoak eta nazionalismoak oposizio bizian dihardute, edo,

konkretuago, alde batean nazioarteko bote

proletarioaren erregimen baten bidezko emantzipazio unibertsala dago, eta, bestetik, independentzia nazional-estatalaren bilaketa. Esan bezala, sozialismoak kultura-aberastasun partikularra emantzipazio unibertsaleko proiektu batean norabide-tzen du, eta nazionalismoak kultura partikularra dominazio unibertsalera subordinatzen du, aberastasuna klase nazional jakin batek bereganatzearen bidez. Nazionalismoak sozialismo internazionalistaren aurka egiten duen oposizio ireki hori gertakari hauetan aurki dezakegu, besteak beste: Versailleseko errepublikanoek Parisko Komunaren aurka jarritako kanoietan, I. Mundu Gerraren kontra agertu zen frakzio sozialistaren aurkako errepresioan, Errusian boltxebismoa «agente prusiar» gisa izendatzen zuen akusazioan edota gaur egun Euskal Herriko Mugimendu Sozialista difamatzen dutenean hari «espainolista» deituta. Klase-borroka nazioarteko batasuna deserosoa izango zaio beti nazionalismoari. Iraultzaileak aldatzen dira, baita erreakzionarioak ere, baina nazionalismoaren funtzio kontrairaultzaileak bizirik irauten du. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Wood, E.M. (2018) *La prístina cultura del capitalismo*. Madril, Traficantes de Sueños. 50-57 or.

[2] Hobsbawm, E. (1997) *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Crítica, Bartzelona. 29 or.

[3] Rousseau, J. (1762) *El contrato social*. Madril, Espasa Calpe. 49 or.

[4] *Ibidem*. 62 or.

[5] Fichte, J.G. (1808) *Discursos a la nación alemana*. Bartzelona, Orbis. 65-98 or.

[6] Mazzini, G. (1830) *Los deberes del hombre*. Buenos Aires, Claridad. 6 or.

[7] Landor, R. (1871) *Entrevista con Karl Marx, líder de La Internacional*. New York World. marxists.org helbidetik lortua.

[8] Mazzini, G. (1830) *Los deberes del hombre*. Buenos Aires, Claridad. 38 or.

[9] Hobsbawm, E. (2021) *Sobre el nacionalismo*. Crítica, Bartzelona. 62 or.

[10] *Ibidem*. 84 or.

[11] *Ibidem*. 69 or.

[12] Marx, K. (1871) *La Guerra Civil en Francia*. Madril, Fundación Federico Engels. 69 or.

[13] Hobsbawm, E. (2021) *Sobre el nacionalismo*. Crítica, Bartzelona. 110 or.

[14] *Ibidem*. 242 or.

[15] *Ibidem*. 91 or.

[16] Renner, K. (1980) *Estado y nación*, en AA.VV., *La Segunda Internacional y el problema nacional y colonial*. México, Cuadernos de Pasado y Presente 73, Mexico, 145-180, 152-160 or.

[17] Stalin, I. (1913) *El marxismo y la cuestión nacional*. Prosveschenie, Viena. www.marxists.org helbidetik lortua.

[18] Hobsbawm, E. (1997) *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Crítica, Bartzelona. 14 or.

[19] *Ibidem*. 13 or.

[20] Barth, F. (1978) *Los grupos étnicos y sus fronteras*. Mexiko D.F. Fondo de cultura económica. 15 or.

[21] Stalin, I. (1913) *El marxismo y la cuestión nacional*. Prosveschenie, Viena. www.marxists.org helbidetik lortua.

[22] Marx, K. (1875) *Crítica al programa de Gotha*. www.marxists.org helbidetik lortua

[23] Lenin, V. I. (1978) *Obras completas*. Madril, Akal. 39-40 or.

[24] Wilson presidentearen hitzak Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuaren aurrean, Alemania eta Austriaren arteko bakeari buruzko adierazpenak aztertzen (biltzarraren osoko bilkurara bidalia 1918ko otsailaren 11n). www.gwpda.org helbidetik berreskuratua 2014ko irailaren 5an.

[25] Dachevsky, F. (2021) *El capital y la nación desde la crítica de la economía política*. Revista Izquierdas. 14 or.

BIBLIOGRAFÍA

Hobsbawm, E. (1997) *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Crítica, Bartzelona.

Hobsbawm, E. (2021) *Sobre el nacionalismo*. Crítica, Bartzelona.

Dachevsky, F. (2021) *El capital y la nación desde la crítica de la economía política*. Revista Izquierdas.

Castillo, J. (2022) *Deconstrucción de la identidad nacional sionista: las raíces ideológicas de la expulsión de los árabes*. Revista de Estudios Internacionales Mediterráneos, Madril.

Wood, E.M. (2018) *La prístina cultura del capitalismo*. Madril, Traficantes de Sueños.

Marx, K. (1871). *La Guerra Civil en Francia*. Madril, Fundación Federico Engels.

Marx, K. (1875) *Crítica al programa de Gotha*.

Stalin, I. (1913) *El marxismo y la cuestión nacional*. Prosveschenie, Viena. www.marxists.org helbidetik lortua.

Hausturak batasunean: kultura nazionalaz eta klase- borrokaz

Testua — **Paul Beitia**



Kulturaren adiera nagusietako bat, eta are gehiago Euskal Herrian, kultura nazionalarena da. Kultura da *hizkuntza* berean eta *lurralde* baten barruan egiten den guztia: hasi liburu, pelikula eta antzezlanetatik, igaro akademia eta ekoizpen intelektualetik, eta poteoraino. Kulturak batu egiten omen gaitu. Baina zein kabitzen da kultura horretan eta zein ez? Zein dira batasun horren hausturak? Testu honetan «kultura nazional» eta «nazionalismo kultural» kontzeptuei erreparatuko zaie, haien klase-izaerari eta gatazka politikoei, batik bat. Ikuspegi zabal batetik egitea izango da asmoa, Euskal Herriko adibideak aipatuta, hurbilen dugulako, baina gainontzekoentzat ere balio dezakeela uste izanda.

ESKU BAT ZERBAIT SEINALATZEN

Zilegi bekito adibide ezagun batekin hasia. 2022ko azaroan, aurkikuntza arkeologiko baten berri eman zuten Aranzadi Zientzia Elkarreak eta hainbat hedabidek: Nafarroako Irulegi herrixkako indusketetan, K.a. I. mendeko brontzezko esku bat topatu zuten, baskoierazko inskripzioekin, euskararekin lotura duen hizkuntza batean idatzitako orain arteko zaharrena. «Irulegiko Esku» izendatu zuten berehala.

Jakinekoea da hori guztia dagoeneko, erabat ezagun bilakatu baita Irulegiko aurkikuntza; hain ezagun, ezen harritu egingo baikintuzke ezagutzen ez duen euskaldunak topatzeak; hain ezagun, ezen *sinbolo nazional* bilakatu baita hilabete eskaseko tartean. Gertakizun horrek asko esan diezaguke testu honetan dagokigun gaiari buruz; horregatik ekarri dugu hona. Izan ere –aldi berean Marx eta Rajoy parafraseatuz–, esku bat esku bat da, eta aurkikuntza bat aurkikuntza bat; soilik prozesu jakin batzuen eraginez bilakatzen da sinbolo nazional. Prozesu hori, Irulegiko Eskuaren adibideak erakutsia, sinbolo nazionalen ekoizpen kapitalista izendatu nahi nuke.

Hiru unetan bereizi daiteke prozesu hori. Lehenik, zabalki mediatizatua izan zen Irulegiko aurkikuntza, aurkeztu eta berehala –berehala, kasu honetan, literalki da–, sare sozialetako jarraipenaren eta hedabideen bidez. Hasiera-hasieratik, «lehena», «zaharrena» eta «inoiz ez bezalako» hitzekin lotu zuten aurkikuntza hedabideek; sareetan, #sorioneku traola sortu zuten, eta askotariko iritzilariak «zorioneko hizkuntza, zorioneko herria» eta antzeko mezuak zabaltu zituzten; hurrengo eguneko periodiko guztiek zekarten aurkikuntzaren berri, «duela 2.100 urte “euskaraz” idazten zen», «etorkizuna pentsatzeko iraganeko sinbolo bat» eta antzeko titularrekin; elkarrizketak, erreportaje luzeak, iritzi-zutabeak argitaratu ziren. Irulegiko Eskuaren

mitoa sortua zen, ordu gutxi batzuetan. Jarraian, eta bigarrenik, kultur industriaren esku-hartzea etorri zen: bi egun eskasera *Berria* egunkariak eta Aranzadi Elkarreak kamisetak eta poltsak jarri zituzten salgai Irulegiko Eskuaren irudiarekin, 20 eurotan; hiru egun eskasera Bulego musika taldeak abesti bat argitaratu zuen bere sareetan, bideo klip eta guzti; Irulegiko Esku markak gisa erregistratu nahi izan zen. Azkenik, astebete eskasera, Irulegiko Eskuaren sinboloa sozialdemokrazia abertzaleak bereganatu zuen: EH Bilduk, Madrilgo Kongresuan onartzekoak ziren aurrekontuen testuinguruan, Nafarroako aztarna arkeologikoa ikertzen jarraitzeko diru-partida lortu zuela aldarrikatu zuen, Gobernuaren aurrekontuak onartzea bera eta polizia eta militarrei zihokien diru-handitzea zuzitzeko, argi-argi.

Sinbolo nazionalen ekoizpen kapitalista izendatu dugun prozesuaren hiru une adierazten ditu adibideak, beraz: mitoaren sorrera, kultur industriaren esku-hartzea eta sozialdemokrazia nazionalistaren artikulazio politikoa. Kultura nazionalaren auziari gagozkionez, abiapuntu horrek gaia marko egokian kokatzea ahalbidetuko digu. Horretarako, batetik, klase-gizarteko auzi oro bezala kultura nazionalarena ere auzi sozial gisa kokatu dugu, hau da, haren autonomia ukatuz eta klase-eraketa esplizitatuz, gizarte kapitalistako prozesu sozial orokorrekin batera aztertuko dugu; eta, bestetik, kultura nazionalaren ulerkera horri dagozkion hiru elementu konstitutibo azalaraziko ditugu: zentzu komun eta mitogintza nazionalista, industria nazionalaren arrazionalitatea eta sozialdemokrazia abertzalea edo klase ertainen politikagintza burgesa.

Hain justu, testu honetan interesatzen zaiguna kultura nazionalaren kontzepzio garaikidea desnaturalizatzea da, eta klase-interesek politikoki artikulatutako proiektu gisa azaltzea.

**Testu honetan interesatzen zaiguna
kultura nazionalaren kontzepzio garaikidea
desnaturalizatzea da, eta klase-interesek
politikoki artikulatutako proiektu gisa azaltzea**



KULTURAREN ULERKERAK GATAZKAN

Kultura nazionalarena da, dudarik gabe, ideologia dominanteak zehaztutako eguneroko erabileran, kultura kontzeptuari dagokion ulerkera indartsuenetako bat. Alegia: kulturaz ari garenean, gehientsuenetan, *hizkuntza* jakin bati eta nazio bati dagozkion *lurralde* eta *tradizio* banari lotutako praktika sozialen multzo batez ari gara; bereziki, gainera, praktika intelektual eta artistikoez –erreferente ideologikoak, nobelak, musika eta beste–, baina baita, modu zehaztugabeagoan bada ere, *hizkuntza* eta *lurralde* bati dagokien talde batek pentsatzeko eta jokatzeko dituen moduez, eta, are, baita taldea talde gisa identifikatzeko moduz ere. Kultura nazionalaren ulerkera garaikideko oinarri indartsuenetako bat, beraz, aipatu ditugun elementuak biltzen dituen *kultura etnikoaren* ulerkerak osatzen du.

Etnizitateari lotutako kultura nazionalaren ulerkera horrek, beraz, giza komunitate baten bizimodua eta talde-identifikazio bereizi eta espontaneoak izendatu nahi lituzke. Zentzu horretan, *prepolitikoa* litzateke: etnizitateak oinarri programatikorik ez duela eta funtzio politiko erabat desberdinak bete ditzan artikulatu daitekeela dio, adibidez, Hobsbawmek, eta zentzu horretan bereizten du nazioaren kontzeptutik ^[1]. Era berean, komunitatearen izaera gisa, berezko esentzia moduko bat ere eman ohi zaio; Joxe Azurmendik, esaterako, nazioa definitzeko «komunitate naturala» lehenesten du politikoaren aurretik: «Horra zergatik insistitzen duan, nazioa lehen-lehenik fenomeno naturala dela. (Beste batzuek nahiago izaten dute antropologikoa edo kulturala esan, berdin zait). Ni eta nire erkindago naturala, Estatua eta hiritarra baino lehen, gauza asko gara» ^[2]. Azurmendiren *komunitate naturala* kontzeptua etnizitatearekin aise pareka daiteke, eta *naturalak*, zentzu horretan, *espontaneoak* esan nahi luke: harreman sozial historikoak eta artikulazio politiko kontzientea gorabehera, giza komunitate batek *berez* duen taldetasunari dagokio, zeina, halaber, nazioaren kontzeptu politikoaren oinarrian egongo bailitzateke.

Kultura nazionala, beraz, haren ulerkera etnikoan, gizatalde batek historian zehar partekatzen duen zera bat litzateke –espiritu edo *Volksgeist* bat, identitate bat, taldetasun bat–, bizimoduaren aldaketa «superfizialagoak» gorabehera eteten ez den tradizio bat, komunitate bat *batzen* duen hori, besteengandik *bereizten* duen hein berean. Finean, gizataldeen elementu determinantea etnizitatea dela dio kontzepzio horrek.

Kulturaren ulerkerak gatazkan daude; ez soilik beren artean, ezpada errealitatearekin berarekin

Kulturaren ulerkerak gatazkan daude, ordea; ez soilik gatazkan beren artean, ezpada errealitatearekin berarekin. Kulturak gizataldeen bizimodua ulertzeko kategoria analitiko izan nahi badu, kontzepzio etnikoa ez da kontzepzio bakararra. Ikuspegi materialista batetik, esaterako, ondo jakina da ez dagoela giza bizimodua errealitate sozial historikotik bereizterik, eta, beraz, eta lehenik, kulturaren ulerkera etnikoa nazionalismoaren artikulazio politikoarekin estu lotuta dagoela, *Arteka* honetako bertako «Nazionalismoaren genealogiak» erreportajearen argudiatu bezala edo Hobsbawmek dioen bezala: «Arrazoi ugari daude nazionalismoak etnizitatearekin identifikatu nahi izateko; izan ere, hark “nazioa”ri pedigri historikoa eman diezaioke, eta nazioak gehienetan ez du halakorik» ^[3].

Geroxeago itzuliko gara nazionalismo kulturalaren gaira, baina lehenago beste geldialdi bat egin nahi nuke. Gizataldeek bizimodu espontaneoak dituztela bistakoa da, existitzen direla komunitatean bizitzeko modu bereziak, bakoitza bere hizkuntza-ohitura eta iraganeko tradizioen askotariko eraginekin; ordea, bizimodu horiek, taldetasun horiek, ez dira sekula ahistorikoak eta «naturalak». Kontrara, historikoki determinatutako harreman sozialen araberako bizimodu kolektiboak dituzte pertsonek, ez dago haietatik kanpo eratutako komunitaterik. Ikuspegi materialistak ahalbidetzen digu, hain justu, antolaketa sozial horren eta bizimodu kolektiboaren arteko harremanak aztertzea, kulturaren auzia desnaturalizatzea eta auzi sozial eta historiko gisa ulertzea, alegia.

Soilik gizarte garaikideen azterketa sozial batek osatu dezake kulturaren ulerkera materialista bat, zehazki ontzat emateak gizataldeen kulturak, haien ulermen- eta jokabide-markoak ezin izan daitezkeela berak Antzinaroan, Erdi Aroan eta gaur egun. Horren froga erakusgarrienetako bat da XVIII. mendean, «kultura» hitza bera nola aldatu zen gizarte burgesaren eraketarekin batera: landareen eta animalien zaintza izatetik, giza arimaren zaintzaren esanahia hartu zuen, zibilizazio baten lanketa intelektualaren produktu izatera iritsi arte, azkenik ^[4]. Adibideak ez du esanahiaren aldaketa soilik adierazten, baizik eta, batez ere, haren oinarrian dagoen bizimodu aldaketa bat.

Izan ere, gizarte burgesa finkatu arte, nahiz eta ekoizpen-modu aurrekapitalistako talde-bizimodu territorialki isolatuak eta inkomunikatuak posible egiten zituzten nagusiki erlijioak eta etnizitateak eratutako komunitateak, kapitalismoaren garapenak azkar ezabatu zituen komunitate horien existentziarako aukerak. Marx eta Engelsek *Alderdi Komunistaren Manifestuan* dagoeneko ohartarazi zutenean burgesiak «aldebakartasun eta itsukeria nazionala gero eta ezinezkoagoa bilakatu» duela, eta «literatura lokal eta nazional ugarietatik, munduko literatura bat sortu» dela, horrexetaz ari ziren hain justu: kapitalismoaren izaera hasieratik internazionala izan dela eta bere garapenak, kapital metaketa gero eta eskala handiagoan egitea dakarren heinean, bizimodu partikularren homogeneizazioa dakarrela, modu progresibo batean, eta metaketa horretara aspizatzen dituen komunitate guztiei bizimodu orokor ber bat inposatzen diela: bizimodu kapitalista. Oso-oso gerora salatu zen «globalizazio» eta, are, «amerikanizazio» fenomenoak, funtsean, ez dira hori baino.

Bigarren Mundu Gerratik hona bereziki, gizarte kapitalistaren garapenak masa-kultura zabalak ezartzea ahalbidetzen du, eta, beraz, etnizitateak eta tradizio nazionalak beren pisua izaten jarraitzen badute ere, klaseen araberrako bizimoduak inposatzen dizkie gizataldeei. Gramsciren hitzetan esateko, «estandarizazio bat» ari zen gertatzen «pentsatzeko eta jokatzeko moduetan», ez soilik hedapen nazionalakoa, baizik eta, lehenbizikoz, nazioartekoa ^[5]. Kontsumo-gizarteak eratuko ziren, eta hari estu lotutako kultur industria moderna garatuko, masa-kultura kapitalista berriaren erreproduktzioarako bitartekoak. Eta, batez ere, erdi-mailako klase indartsu bat eratu ahal izango zen, burgesia txiki nazionalak eta goi-mailako langileek osatua, bizimodu berri horren oinarri sozial gisa.

Beraz, gutxienez Gramsciz geroztik, «kultura» «masa-kultura»ren zentzuan erabiliko da: gizarte kapitalistak berak gizataldeei beren posizio sozialaren arabera eta internazionalki inposatuko dien bizimoduaren zentzuan. Mendebaldeko kultura nazional, erregional eta lokal guztiak, beraz, kultura kapitalista orokor baten barruan estandarizatu joan dira ordutik hona, eta horixe da joera oraindik ere: literatura nazionalak tendentzia internazionalak emango dituzte beren hizkuntzetan, nazio bakoitzeko zinemetan antzeko istorioak ikusiko dira, musika-industriek joera berberak ekarri nahiko dituzte beren eszena nazionaletara. Finean, kultura nazional deitzen ditugunak gero eta nabarmenago bihurtu dira kultura kapitalista orokorraren espresio partikularrak, eta, zehazkiago, klase ertain nazionalen espresioak, lekuan lekuko kultur industria eta bizitza sozial hegemonikoa ordezkatzan duten heinean.

Mende berrira sartuta, egun joera are muturrekoagoa da: musika bera, plataforma berak eta liburu berak kontsumitzen ditugu ia, izan nork bere hizkuntzan zein ez, baina gauza berak. Homogeneizazio kapitalistak ez baititu soilik kultura nazionalak berdintzen, ekoizpen artistikoa eta intelektualak eta bizitza osoago baten aukerak ere mugatzen ditu: giza gaitasunen garapen askea bera da deuseztatzen duena, funtsean. Elementu etniko-kultural partikularrek –hizkuntzek barne– oinarri horietan dituzte orain existitzeko aukerak: folklorizatu edo zuzenean suntsitu egingo ditu homogeneizazio kapitalistak, eta, irautekotan, modu merkantilizatuan izango dituzte irauteko aukerak –kirolak, ohitura tradizionalak edo, are, hizkuntzak, kasu–. Eta kapitalismoak areagotu baizik ez du egingo joera hori.



**Kultura nazional deitzen
ditugunak gero eta nabarmenago
bihurtu dira kultura kapitalista
orokorraren espresio partikularrak,
eta, zehazkiago, klase ertain
nazionalen espresioak, lekuan
lekuko kultur industria eta
bizitza sozial hegemonikoa
ordezkatzten duten heinean**





**Gizarte kapitalistan, kultur
partikularitate nazionalen defentsa
ezin daiteke modu autonomoan
eta naturalean ulertu eta, beraz,
ezin daiteke bereizi klase ertainen
bizimodutik eta ideologiatik**

Kultura nazionalaren izaera kontraesankorra: nahiz eta klase ertainak, bereziki bere espresio nazionalistan, batasun-elementu gisa erabiltzen duen klase-bereizketak ezaugarritzen duen gizartea estaltzeko ideologia gisa, errealitatean justu kontrako funtzioa da betetzen duena: klase-bazterketarena

KLASE ERTAINAK ETA NAZIONALISMO KUTURALA

Kultura nazionalaren auziak beti egiten du topo erdi mailako klaseen auziarekin: nazionalismo erromantiko alemana eta XVIII. mendeko klase ertain antiburgesa, gerraosteko *American way of life*a eta suburbioetako erosotasuna, Italiako faxismoa eta klase ertainen krisia, Trantsizio-osteko Espainiaren irudi demokratiko ustela eta langile-aristokraziaren integrazioa. Orain arte esandakoarekin, argi behar luke dagoeneko kultura nazionalaren auzia ere klase-gizartearen dinamika sozialekin batera ulertu beharra dagoela, eta, beraz, historiak temati erakusten dizkigun adibideak ezin daitezkeela kasualitate soiltzat hartu, ezpada dinamika sozial horien beren konstatazio gisa. Dagokiguna klase ertainen eta kultura nazionalaren harremana aztertzea da, hala prozesu horien ulermenean sakontzeko.

Ez zuen alferrik esan Gramscik burgesia txikia zela «“territorialki” nazionala den klase bakarra»^[6]. Italiako kasuaz ari zen hura, baina analisi orokorrako baterako balio diezaguke. Izan ere, burgesia handiaren eta klase ertainen blokearen bereizgarri nagusietako bat kapital metaketaren eskala territoriala da. Kapitalismoaren berezko izaera internazionalan eta merkatu globalean, burgesia handiak eta kapital finantzarioak nazioarte-mailan defendatzen badituzte beren klase-interesak, enpresa ertain eta txikiagoek osatutako industria nazionalak –kapital handiaren nazioarteko metaketaren baldintzapean eta harekiko dependentzian, betiere– burgesia txikiaren esku gelditzen dira, eta,

beraz, nazio-mailako lurralde-izaera hertsia goa hartzen dute. Haiekin batera, maila territorial bera hartzen dute langile-klasearen goren kapek ere: administrazio lokal eta nazioaleko langile publikoek, irakasleen zati handi batek eta bestek; kultur industriari lan egiten duten funtzionarioek, zuzendari eta kazetariak eta kultur enpresariak; eta industria ertain-txiki nazionalako langile –orain arte, bederen– ondo pagatuek. Horiek guztiek osatu ohi dituzte, lekuan lekuko desberdintasunekin, klase ertain nazionalen blokeak.

Muga territorial horiek beren ondorio politiko eta ideologikoak dituzte: alde batetik, estatu-aparatu burgesetarako sarbidea ematen dio klase ertain nazionalaren blokeari eta, bestetik, ekoizpen kultural-ideologikorako botere-kuota batzuk eskuratzen ditu, biak ala biak, orain arte esan bezala, kultura nazional garaikideen ekoizpenerako bitarteko indartsuak. Inmigrazioaren gaia lantzen duen *Artekako* urriko zenbakian, bide beretik jo zen: «Hegemonia sortzaile eta zentzu komunaren eramaile da klase ertaina. Kultura-sortzaile den klase horrek sistema kapitalistaren kohesio funtzioak betetzen ditu; horregatik, hain justu, nahasten du kultura bere neurrira egindako ekoizpen ideologiko-merkantilarekin, eta kultura nazioarekin, izan ere, klase ertaina da nazioa»^[7]. Alegia: klase ertaina bada territorialki nazionala den talde soziala, nazioa klase ertaina bera bada, kultura nazionala bere neurri-egintza kultura da.



Horrek berriz itzularazten gaitu kulturaren ulerkeren auzira: argudiatu dugun moduan ulertuta, kultura nazionala ez da soilik dantza tradizionalen eta ohitura folklorikoen multzoa; are, ezta hizkuntza batean egiten den ekoizpen artistiko eta intelektuala ere. Kultura nazionala bizimodu bati ere badagokio –kulturaren adiera arruntago batean–, kultura kapitalistaren espresio partikular baita, zeinak sinbolo nazional bereizgarriak, praktika linguistikoak eta tradizioak ere barnebilduko baititu, baina guztiak hegemonia kapitalistaren parte diren klase ertainen ideologia eta jokabideek artikulatuta.

Behin gaia modu horretan kokatuta, errazago hurbilduko gara nazionalismo kulturalera ere, kultura nazionala oinarritzat duen eta haren defentsa egiten duen ideologia politikora. Hain justu, klase ertain nazionalen bizimoduak kultura kapitalistaren espresio partikularizat ulertzeak eta talde sozial hori bera kultura nazionalen ekoizle eta erreprodukzio-bide gisa kokatzeak azalerazten duena zera da: gizarte kapitalistan, kultur partikularitate nazionalen defentsa ezin daitekeela modu autonomoan eta naturalean ulertu eta, beraz, ezin daitekeela bereizi klase ertainen bizimodutik eta ideologiatik. Horrek ideologia nazionalista eta haren kultura nazionalaren erreprodukzio-proiektua marko kapitalistara mugatzen ditu, doi-doi: merkantilizazio prozesura eta Estatu burgesaren esparrura. Lehenik, partikularitate nazionalen defentsa

bera bizimodu kapitalista modernoaren defentsari lotzen dio estuki; nazio bateko herritar izatea ez da soilik izango historia nazionala ezagutzea, bertako hizkuntza jakitea edo dantza tradizionalak ezagutzea; zibismo arau batzuekin lotuko da, herritar izateko *modu* batekin, zeina klase ertainei baitagokie. Eta, bestetik, aurrekoarekin erabat lotuta, kultura nazionalaren erreprodukzioa eta biziraupena estatutur burgesarekin lotuko ditu beti nazionalismoak, bere aldaera guztietan; dela modu parlamentarista edo autonomista batean, instituzio publikoen eta diru-partiden kudeaketa azpimarratuta, dela modu apurtzaile erradikalago batean, nazio-estatu burges independentearen eraikuntzan ipinita indarra.

Hain justu, nazionalismo kulturalaren eta kultura nazionalaren auziak klase ertainen bizimoduarekin eta estatu burgesaren markoarekin lotuta, ulertu daiteke nola oin hartzen duen kultura nazionalaren ideia garaikideak klase ertain nazionalen pribilegioetan. Estatu burgesa izan da, haren ongizatezko aldaera historikoan, klase ertain nazionalak bere aparatuetan integratu ahal izan dituen eta bizimodu pribilegiatu bat eskaini ahal izan diena. Horrek integrazioaren auzia dakarkigu, eta, beraz, kanporatze sozialarena ere bai nahitaez. *Artekako* urriko editorialak zioen: «Nazionalismoa, esaterako, nahiz eta naziotasunaren definizio aurreratuenak eskaini, beti datza zehaztean nor ez den bere taldekoa eta nori ez zaizkion onartu behar talde horrek bermatzen dituen eskubideak». Alegia: talde sozial baten integrazio ekonomiko, politiko-juridiko eta kulturalerako prozesuaren ifrentzuan beti dago beste talde batzuen kanporatze prozesua. «Arrazismoaren auzia argigarria da zentzu horretan. Baita nazionalismoarena ere. Biek, modu batera edo bestera, langile klasearen parte handi bat uzten dute kanpoan, eta beti proletarizatuena»^[8]. Horrela, kultura nazional garaikideak zehazten dituen klase ertainen bizimodua eta ideologia badira, hortik kanpo gelditzen direnak, hain justu, bizimodu hori eduki *ezin* dezaketenak dira: funtsean, proletalgoa, gizarte kapitalistaren gehiengo soziala.

Horrexek azalerazten digu kultura nazionalaren izaera kontraesankorra: nahiz eta klase ertainak, bereziki bere espresio nazionalistan, batasun-elementu gisa erabiltzen duen klase-bereizketak ezaugarritzen duen gizartea estaltzeko ideologia gisa, errealtatean justu kontrako funtzioa da betetzen duena: klase-bazterketarena. Eduki sozialari erreparatuta, klase ertainen pribilegioen erreprodukzio-prozesuaren parte bilakatzen da, eta proletalgoaren kanporatze kulturala haren bazterketa sozialaren parte. Kultura nazionalari, horrela, bere batasuna hausten zaio eta ideologia kapitalistak proiektatutako *de facto*zko marko bilakatzen da, gizarteko gainontzeko esparru guztiak bezala klase-borrokaren gatazka politikoei zeharkatua.

ARESTI BAIONAN

1972an, Baionako Euskal Museoan, Gabriel Arestik eta Oskorri taldeak kantaldia eman zuten. Oskorrik abestu eta Arestik hitzaldi modukoa osatu zuen kanten sarrera eta azalpenetan, publiko euskaldunaren aurrean. Lau urte eskas lehenagotik, euskara batuaren proiektuko bultzatzaile zebilen Aresti, baina orduko hartan «kontuak ematera eta hartzera» zihoazen. Ondo jakina zen bai musikariak eta baita idazlea ere komunistak zirela, garai hartan Euskal Herrian ziharduten langile-mugimendu iraultzaileko espresio zenbaitekin bat egiten zutela, eta hortik ulertzen zutela beren jarduna. Ordurako, posizio horrek berak askoren arbuioa ekarria zien bi-biei. Hala ere, Arestik ausart altxa zuen boza: «klase sozialik gabeko sozietate euskaldun batekin amets egiten dugu», esan zuen, «beste askok, berriz, klase sozialdun sozietate para-euskaldun bat nahi dute». Kanta eta kanta artean, hau ere bai: «euskaldun burjesak eta euskaldun proletarioak jo-muga ber-berak ezin dituzketela konprenitzen dut», argituz berak euskararen biziraupena proletalgoaren emantzipazioarekin lotzen zuela, posible zela euskararen defentsa bat batasun nazionaletik kanpo. Horren ondorioez, ordea, jakitun zen: «nik ere hamaika portaera zikin soportatu behar ukan dut; ene euskalduntasuna dudan jarri dute publikoki (nortzuk eta, Letek eta Txillardegik berak ere)»^[9].

Zenbait harritu daitezke Arestiren posizioarekin eta, bereziki, garai hartan jasandako arbuioarekin. Izan ere, gaur egun Aresti gogoratzen –eta irakasten, eta aldarrikatzen– baldin bada, haren euskaltzaletasunetik egiten da, haren berrikuntza formal literarioetan eta euskara batuaren proiektuan soilik oinarrituta. Batasunaren aldeze gisa gogoratzen da, abertzale huts gisa ia; haren posizio sakonki komunista ezabatuta eta erabat despolitizatuta, beraz. Hori izan da hainbat figura komunistaren patua –Alfonso Sastre Espainian, Verlaine eta Courbet Frantzian, Morris Inglaterran, eta beste asko–: despolitizatu egin behar izan direla kultura nazionaletan integratuak izango badira, ezkutatu egin behar izan dela haien posizio komunista, kultura nazionalaren integrazio eta kanporatze dinamikei jarraituta. Izan ere, komunistek eta proletalgo ez-integratuak izaera bera dute: *de facto* hausten dute batasun nazionalaren markoa.





Langile-mugimenduak eta, zehazki, mugimendu iraultzaile eta komunistak ekarpen ikaragarriak egin ditu giza historiaren aurrerapenean eta, beraz, baita lekuan lekuko bizitza nazionaletan ere



Langile-mugimenduak eta, zehazki, mugimendu iraultzaile eta komunistak ekarpen ikaragarriak egin ditu giza historiaren aurrerapenean eta, beraz, baita lekuan lekuko bizitza nazionaletan ere. Posizio komunistatik egindako ekoizpen artistiko eta intelektualak, esaterako, berrikuntza estetikoak ekarri ditu etengabe, literatura eta pentsamendu-tradizio osoak ekarri ditu nork bere hizkuntzetera; argitalpenak, antzokiak, elkarguneak sortu ditu; bertako eta kanpoko artearen eta pentsamenduarien sozializazioaren eta demokratizazioaren alde lan egin du. Egunerokotasunari lotuago, nazio guztietako proletalgoaren parte-hartze soziala handitu du, jakintza intelektual eta jardunbide kolektiboak zabaldu ditu. Eta, are, sinbolo kolektibo eta nazionalak eraldatu ditu, tradizio nazionalak berrikusi eta korronte internazionalekin lotuta aurrerantz bultzatu ditu, dibertsitate kulturala defendatu du eta kultur komunitate partikularrei izaera inklusiboago bat eman die. Ekoizpen sozial hori guztia, ordea, ez dute mugimendu iraultzaileek egiten kultura nazionala elikatze eta indartzeko –hizkuntza eta lurralde jakin batzuetan eginagatik ideologia dominanteak *de facto* kultura nazionalaren markoan kokatzen badu ere–, proletalgo internazionalaren askapenagatik baizik, kultura komunista unibertzala sustatzeko.

Horregatik, politika komunistak marko nazionalen egiten dituen ekarpenak era berean dira batasun nazionala hautsi eta kultura nazional jakin baten kontra borrokatzeko moduak. Leninek 1913an ematen zion zentzu berbera du auziak: «kontua da marxistek kultura nazionalaren kontsigna, zuzenean ala zeharka, formulatu ote dezaketen ala langile *internazionalismoaren* kontsigna kontrajarri behar ote dioten, hizkuntza guztietan eta partikularitate lokal eta nazional guztietara egokituta»^[10]. Izan ere, politika komunistaren jarduna, lurralde eta hizkuntza berean eginagatik, zuzenean kontrajartzen zaio kultura nazional hegemonikoari, kultura horrek, orain arte argudiatu dugun moduan, klase-izaera jakin bat duelako, hain zuzen ere. Nola bait, gizarte burgesaren funtzionamendu kontraesankorrean, politika komunistaren dimentsio kulturalak ekarpena egiten dio kultura nazional bakoitzari, kultura nazional horren kontrako klase-borroka egiten duen aldi berean. Horregatik sortzen ditu tentsioak eta gatazkak kultura nazional ofizialen barruan, haren oinarri soziala diren klase-pribilegioak eta haren marko politiko-ideologikoa bera zalantzan jartzen dituelako. Eta horregatik kanporatzen dira posizio komunistak komunitate horretatik; berdin gerraosteko komunistak estatubatuarrek «aberriaren etsai» hartu zirenean, berdin Arestiri «euskalduntasuna dudana» jarri ziotenean, edo Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako gaur egungo komunistoi «espainolista» hots egiten zaigunean. «Arrotz» gisa hartzearen arrazoiak, komunitatetik egoztekoak, ez dira nazionalak, sakonki politikoak baizik.

Arestik berak, euskal kasuan, eta komunismoaren historia osoak eredu apartekoa ematen digute politika iraultzailearen eta kultura nazionalaren arteko harremanaz sakonki jabetzeko. Ikuspuntu komunistatik, oraindik ere, landu dugun gaiaren erronka nagusia baita nola formulatu partikularitate kulturalen biziraupena posizio ez-nazionalista batetik. Komunismoaren proiektuak, proletalgoaren antolakuntza politikoa eta klase-independentzia esan nahi duen heinean, batasun nazionalaren ideiarekin haustea esan nahi du, nazioarteko eta nazio bakoitzeko burgesiari gerra deklaratzeari esparru guztietan, eta hortik pentsatu beharra dauka, beraz, kulturaren auzia ere. Gazte Koordinadora Sozialistak 2022ko abenduan egindako adierazpen batzuetan zioen, «giza kultur ondarearen defentsa egitea, baita hizkuntza gutxituena ere, komunismoaren aldarri historikoetako bat» izan dela, eta «zentzu horretan kokatzen» dutela «euskararen aldeko borroka» ere. Kultur ondarearen biziraupenerako eta garapen askerako bermeak burgesiari eta klase ertainei haren gaineko boterea erauztetik etorriko dira nahitaez, haien eredu merkantil eta baztertzailea gainditu eta, zapalkuntza guztiak –baita nazionala ere– gaindituko dituen gizartera bidean, sozialismo internazionalaren proiektu unibertsalean artikulatzetik. Guk partikularitate etniko-kulturalen biziraupena nahi baitugu, baina askoz-askoz gehiago ere bai: gizateria osoaren emantzipazio osoa eta hark ekoiztutako aberastasun osoaren sozializazioa, sarbide unibertsala eta garapen askea nahi ditugu; langileok historian zehar sortutako aberastasun sozialarena, zientzia eta pentsamenduaren jakintza-ekoizpen osoarena, arte unibertsal guztia, eta, horren guztiaren baitan, baita ondare etniko-kultural partikularrena ere. ●

Kultur ondarearen biziraupenerako eta garapen askerako bermeak burgesiari eta klase ertainei haren gaineko boterea erauztetik etorriko dira nahitaez, haien eredu merkantil eta baztertzailea gainditzetik



ERREFERENTZIAK

[1] Hobsbawm, E. (1992), «Ethnicity and Nationalism in Europe Today», *Anthropology Today*, VIII (1), 4. or.

[2] Azurmendi, J. (2017), *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Elkar, 46-47 or.

[3] Hobsbawm, E. (1992), «Ethnicity and Nationalism in Europe Today», *Anthropology Today*, VIII (1), 4. or.

[4] Williams, R. (1958), *Culture and Society: Coleridge to Orwell 1780-1950*, Londres: Vintage Classics.

[5] Gramsci, A. (2017), «El hombre individuo y el hombre masa», *Escritos. Antología*, Alianza Editorial, 373-374. or.

[6] Gramsci, A. (2017), «La crisis de las clases medias», *Escritos. Antología*, Alianza Editorial, 135. or.

[7] «Arrazakeria, proletalgoaren pobretzea», *Arteka* 32, 2022ko urria, 7. or.

[8] *Ibid.*, 8. or.

[9] Aresti, G. (1986), «Euskal-kideak, Baiona, '72», *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 108-122. or. Zarautz: Susa.

[10] Lenin, V. I. (1975), «El socialismo y la cuestión nacional», *Escritos sobre la literatura y el arte*, Ediciones Península, 161. or.

Euskal nazionalismo tradizionalaren iturriak eta korronteak

Testua

Dani

Askunze



Luis Arana Goiri eta Sabino Arana Goiri



Lehenengo Aberri
Eguna, Bilbo, 1932



Gutxienez azken mendean, nazio auziak markatu du Espainiako Estatuaren errealitate politikoa. Espainiar nazio-eraikuntzaren prozesua ahula eta osatugabea zen artean, XIX. mendearen amaieran, mugimendu nazionalista periferiko garrantzitsuak sortu ziren, besteak beste, katalana eta euskalduna. Auzi horren agerpenak, aurrekari historikoetatik haratago, Espainiako garapen kapitalistak zituen baldintza jakinetan du muina. Alde batetik, iraultza burgesaren porrotean du oinarria^[1], eta, bestetik, periferian kontzentratutako garapen ekonomiko desorekatu batean^[2]. Paradoxikoki, nazionalismo zentrala nahiz periferikoak ez dira gai izan euren proiektu nazionalak burutzeko: Espainiakoak, estatu zentralaren indarra berekin izan arren, hegemonia nazional prekariora izan du, etengabe zalantzan jarri dena; periferikoek, berriz, historiaren trena galdu zuten beren nazioak estatu bilakatzeko. Nazioa eta nazionalismoa nahastu behar ez badira ere, jatorri bera dutela esan daiteke, eta bigarrenaren indar politikoa lehenengoaren garapen-mailaren adierazle gisa erabil dezakegu, batez ere, estaturik gabeko nazioetan.



Jose Antonio Agirre, Aberri Eguna, Donostia, 1933

Baina kontenplazio hutsetik haratago, nazionalismoaren eta nazio zapalkuntzaren aurkako borrokaren monopolioa zalantzan jarri nahi badugu –komunistentzat ezinbestekoa den zeregin politikoa–, ezinbestekoa izango da mugimendu horren ibilbidea aztertzea. Jarraian, euskal abertzaletasun tradizionalaren iturrien, eraginen zein korronteen azaleko errepasoa egingo dugu, eta haren ezaugarri ideologiko batzuei erreparatuko diegu, nahiz eta ez dugun sakonduko horren guztiaren testuinguru historiko eta sozial zabalean. Zerbait berria ez izanagatik, beharrezko ariketa izango da, baldin eta nazionalismoaren nahiz euskal nazio auziaren ondorengo bideak ulertu nahi baditugu.

FORUZALETASUNETIK NAZIONALISMORA

Espainiako bateratzeko politiko eta ekonomikoaren prozesuan, karlisten porroten ondoren, foruak abolitu ziren: 1841ean Nafarroako Erresuman eta 1876an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horren aurrean, 1876tik aurrera bereziki, hainbat mugimendu eta figura intelektualek foru horiek defendatzeko eta berreskuratzeko aldarria egin zuten. Alde batetik, foru-sistema horrek euskal gizarte tradizionalaren gainegitura juridiko-politikoa osatzen zuen, eta oinarri zituen alde aurretiko independentzia teoriko bat eta Espainiako monarkiarekin egindako itunean funtsatutako autonomia politikoa. Hori ezabatzeak aldaketa sozioekonomiko handiak eragin zituen. Bestetik, foruzaletasunari dagokionez, zentzu zabalean hartuta eta ikusiko dugun moduan, hainbat eragile eta korrontek nork bere ñabardurekin eskatu zuten *foruen berrezarpena* deiturikoa –foruen abolizioaren aurreko egoerara itzultzea–, baita nazionalismoak berak ere.

Alde batetik, karlismoa^[3] zegoen, mugimendu soziopolitiko dinastiko, tradizionalista eta antiliberal indartsua. Karlismoak mende bat baino gehiago iraun zuen eta bi gerra zibilen protagonista izan zen. Mugimendu erabat espainiarra zen, baina Euskal Herrian oso sustraituta zegoen nekazari eta herritar askoren artean. Ez gara fenomeno horren konplexutasuna eta garapena aztertzen hasiko, baina aipatu behar dugu puntu komunak zituela nazionalismoarekin. Biek auzi erlijio-soa eta forala barne hartzen zituzten, baita kontzepzio sozial tradizionalista eta korporatibista ere, baina nork bere *erregea* eta *aberria* zituen buruan: *Espainiak* (edo *las Españas*) batzuek, *Euzkadi* besteek. Karlismoaren fakzio integristaren kasuan, alde batera uzten zuen dinastiaren afera, eta horrek lagundu egin zion nazionalismoaren ondorengo doktrina-berrikuntzei.



Arturo Campion (1854-1937)



Nafarroako Euskarazko Elkargoa, 1877an sortua



Foruen monumentua (Iruñea, 1903), Gamazadaren (1893 eta 1894) ondoren eraikia


Gizarte-testuingurua, hala ere, garrantzi handiko ezberdintasuna izango da: gizarte tradizionala bere buruaren biziraupena luzatzen saiatzen zen lekuetan karlismoak irautea zuen; eta, industrializazioak gizarte horren biziraupena krisian jartzen zuen lekuetan, nazionalismoa loratzen zen. Dena dela, biek garai eta espazio bera konpartitu zuten, antzeko oinarri soziala euren-ganatzeko norgehiagokan aritu ziren eta haien arteko gorabeherak izan zituzten. Hasieran, euren artean etsaitasuna nagusi bazen ere, 20ko eta 30eko hamarkadetan hainbat aliantza egitera heldu ziren. Azkenik, 36koa paradoxi-koa izan zen, elkarri militarki aurre egiten amaitu baitzuten, eta nazionalista asko neutral gisa edo Errekete karlistaren lerroetan agertu ziren, hala bizirauteagatik, nola afinitateagatik.

Abertzaletasunaren aurretik, bereziki foruzalea zen beste alderdi bat agertu zen, karlisten eta liberalen arteko biko banaketa horri hirugarren aukera bilakatzen ahalegindu zena, baina ibilbide labur eta alferrikakoa izan zuen, Nafarroan babes sozial handirik ez zuelako. Garrantzitsua izan zen *euskaroen* eragin kulturala, eta, bereziki, Arturo Campionen ideologia aldakor eta konplexuarena^[4]. Nazionalismo arnastaren aurrekari eta geroagoko garai-kide gisa, berriz ere komunikazio-zubiak zein tirabirak izan ziren. Besteak beste, desadostasun horiek Campionei euskarari eta euskararen batasunari emandako garrantzia islatu ziren, Aranek arraza eta garbizalekeria linguistikoa lehenesten zituen bitartean; Euskal Herria Nafarroatik eta ez Bizkaitik pentsatzean, edo nazionalismo erregionalista planteatzean, separatismo sabinistaren ordez.

Inguru foruzale lausotik eta euskal berpizkunde kulturaletik irten gabe, literatura erromantiko historizista ugari egon zen, eta horrek euskal landa-munduari ikuspegi bukolikoa ekarri zuen. Mugimendu kultural horren barruan figura ezberdin asko ikus zitezkeen, Navarro Villoslada militante karlistatik hasita Agosti Xahorra; erromantikoa zen Xaho ere, baina politikoki errepublikarra eta frantses iraultzailea. Garaiko moda literarioaren lizentziez eta bere eragin politikoz gain, baziren antzinagoko tradizio batean topatu daitezkeen elementuak. Tradisten eta apologisten^[5] kasuan, foruen defentsan ideologia oso bat erakitzen ari ziren, eta aita Larramendi izan zen nabarmendu zen figura bat. *Igualitarismoa* ari gara^[6], Euskal Herrian berdintasunean eta demokrazian oinarritutako iragan sinesgaitz baten mitifikazioa. Noblezia unibertsal hori odol-garbitasunarekin, hizkuntzaren mantentzearekin eta erlijio-fedearekin lotuta agertu zen behin eta berriz, eta hori guztia foruetan gorpuztu zen, euskalduntasunaren esentzia gisa, zeinaren defentsa lehen nazionalismoak heredatu zuen.

Ikus dezakegunez, euskal nazionalismoaren esparru ideologikoa nabarmenki erreakzionarioa izan zen, eta ideologia horri estu lotuta agertu zen hasieran. Horrek markatu zuen haren garapena denbora batez.

Jose Antonio Agirre
Lizarran 1931ko
ekainaren 14ko
mitinean, Lizarrako
Estatutuaren aldeko
nazionalisten eta
karlisten kanpaina
bateratua. Bere
eskuinean, Fortunato
Agirre alkatea



Lehen Aberri Egunaren bezperan (1932),
Arturo Campionek idatzitako Pedro Mari
kontaketa moldaketa bat antzeztu zen



LEHEN NAZIONALISMO ARANISTA

Sabino Arana, 1895ean Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) sortzailea eta euskal nazionalismoaren aita moduan izendatzen dena, izan zen lehen nazionalismo horri doktrina multzo bat eman ziona. Esan bezala, XIX. mendeko tradizio foruzaletik jasotako zenbait elementu arrazionalizatu zituen, hala nola erlijioa, arraza, hizkuntza –garritziaren arabera egindako ordena zorrotz horretan– edo foruak. Alabaina, azken elementu horren berrinterpretazioa izan zen gainerakoengandik bereizgarria. Aranarentzat foruak –*lege zaharraz* ordezkatutako terminoa– jatorrizko independentziaren sinonimo ziren, euskaldunen egoera naturala, urteen joanarekin murriztuz joan zena. Haren iritziz, horiek berrezartzeko eta euskal arraza eta bere fedea salbatzeko modu bakarra –izan ere, *jaungoikoa* zen bere leloren lehen zatia– Espainiatik esplizituki bereiztea da, aurreko foru-lurraldeen konfederazioaren bidez. Horregatik, nazio-kontzeptualizazio aranistaren –*Euzkadi euskaldunen aberria da*– etorkizuneko proiektua, hein handi batean, atzera buelta bat izan zen, nazioaren kontzeptu modernotik urrun zegoena.

Pentsamolde hori era nabarmenean markatu zuen klase herrikoi prekapitalista euskaldunek industrializazioarekin sentitu zuten erasoak, klase horiek sozialki desplazatuta baitzeuden beren mundua erortzen ari zela ikusten zuten bitartean. Horregatik, aranismoa, hasieran, Bizkaiko fenomeno bat zen, eta, batez ere, Bilbokoa. Gizarte-aldeketa azkarrak aberriaren desnaturalizazio gisa ikusi ziren: iraganean gauzak izateko modua idealizatu zen, nekazal ikuspegiarekin. Eraso horren eragileak klase sozial moderno berriak izan ziren: alde batetik, itsasadarreko oligarkia industrial eta finantzarioa; bestetik, proletalgo etorkina, *maketo*a, borrokatu beharreko ohitura eta ideologia arrotzak –hau da, *espanolizazatzaileak*– zekartzatenak, esaterako, liberalismoa, ateismoa edo sozialismoa.

Aranismoaren oinarritzko elementuak ez ziren luzaroan aldatu, bereziki, plano sinbolikoan. Haren aplikazio praktikoa, ordea, beste gauza bat izan zen, oraindik itxaron egin behar izan baitzuten nazionalismoa mugimendu gisa ezar zedin.



Sabino Polcarpo Arana Goiri (1865-1903)

**Aranismoaren
oinarritzko
elementuak ez
ziren luzaroan
aldatu, bereziki,
plano sinbolikoan**

TENTSIOAK ETA ADISKIDETZEAK

XX. mendean, beste sektore moderatuago bat nazionalismora hurbildu zen, Aranaren separatismo zorrotzarekin kontrastean. Euskalherria Elkarre foruzaletik zetorren sektore hori, eta Ramon de la Sota enpresaria zen buru. *Euskalerrriakoek* foruen irakurketa desberdina egin zuten, eta haien itun izae- ra nabarmendu zuten. Horrenbestez, termino erregionalistetan –kontzertu ekonomikoaren eta autonomia-estatu- tuaren aldekoak– mintzatu ziren, ez in- dependentistetan. Horrek oligarkikoa ez zen burgesiaren interesak defendatu zituen, eta bere negozioak dinamizatzeko marko baten defentsan jarri zuten fokua, ordurako burututa zegoen industrializazioaren gaitzespen txiki- burges batean baino gehiago.

Planteamendu horiek, hasieran, gaitzetsi egin zituen Aranak, baina las- ter elkar ulertu zuten. Une horretatik aurrera, kontziliazio- eta tentsio-joko bikoitz horretan oinarrituta garatu zen nazionalismoa, eta aipatu ditu- gun klase-interes kontraesankor ho- riek bigarren maila batean utzi ziren. EAJren hazkundea eta gizarte-sektore zabaletarako hedapena, neurri batean, sektore moderatua sartzeak markatu zuen. Izan ere, sektore moderatuak, alde batetik, dirua ekarri zuen; baina, bestetik, eta ororen gainetik, posibilis- moa eta operatibitate praktikoa ekarri zituen. Era horretan, aranistek eta *eus- kalerrriakoek* bat egin zuten, eta sinte- si horren muina ortodoxia ideologiko sabindarra izan zen. Ortodoxia horrek aldaketarik gabe iraun zuen denbora luzez, praktikari zegokion alorra sotis- moari uztearen truke.

Une horretatik aurrera, kontziliazio- eta tentsio-joko bikoitz horretan oinarrituta garatu zen nazionalismoa

Ordutik eta gaur arte, azken hori izan zen EAJren sektore hegemonikoa –inoiz auzitan jarri izan bazen, 1921eko zatiketaren momentuan baizik ez zen izan–, eta haren Aranaren osteko erre- ferentzia nagusia Engracio de Aranzadi *Kizkitza* izan zen. Urte batzuk geroago, 30eko hamarkadan, sektore horretatik beste lerro bat garatu zen, oraindik ofi- ziala zen integrismoa zuena abiapuntu, eta bere oinarriak gerora ezagutu zen kristau-demokraziatik gertu jarri zi- tuen. Manuel de Irujo eta, bereziki, Jo- se Antonio Agirre^[7] lehendakaria dira lerro horren aurpegirik ezagunenak.



DISIDENTZIAK:
ABERRITARRAK, EKINTZALEAK,
MENDIGOIZALEAK,
SOLIDARIOAK

Esan dugunez, existitzen zen nazionalismoa aranisten eta sotisten arteko konpromiso baten emaitza zen. Konpromiso hori egonkorra izan zen denbora batez, baina itzaleko tentsio bat ezkutatu zuen, zenbait momentutan eztanda egin zuena.

***Aberriren neoaranismoak
aurrekoak mahaigaineratutako
elementuei heldu zien berriz
ere, berri batzuk gehituta***

Aberri Eguna, Donostia, 1933



Lehenengo gertakaria PNV-Aberri-rena izan zen 1921ean, Eusko Elkarte Abertzale ofizialarekin hautsi zueneko. Zatiketaren xehetasunetatik eta testuingurutik haratago, ikus dezagun bere izaera ideologikoa. *Revival* moduko bat izan zen, ortodoxia sabindarrari eta separatismo zorrotzari heldu ziena berriro, alderdiaren deriba posibilitataren aurka. Mugimendu horren buru Euzko Gazteditik zetorren Elias Gallastegi *Gudari*^[8] izan zen, eta Luis Arana-
ren, sortzailearen anaiaren, laguntza izan zuen. Aberriren neoaranismoak aurrekoak mahaigaineratutako elementuei heldu zien berriz ere, berri batzuk gehituta. Sozialki erradikalizatu egin zen, baina kapitalismo baten gehiegikeriak gaitzestera mugatu zen; burges-txikien ulermen markoan eta kanpoko erasotzat hartuta. Dena den, dlanan jarri zituen, oligarka handiak ez ezik, burges nazionalistak ere, eta haien moraltasun eza eta aberriaren batasunaren aurkako traizioa salatu zituen. Era berean, begirada zabaldu zuen Marokoko gerraren inguruan interesa jarri zuenean, eta inperialismoaren aurkako terminoetan elkartasuna adierazi zion Rifeko kausari, Espainiaren okupazioaren aurka. Ildo beretik, 1923ko Aliantza Hirukoitzaren bidez galiziar eta kataluniar nazionalistekin elkartzen saiatu zen. Hala eta guztiz ere, eraginik erabakigarriena irlandar errepublikazaletasunak^[9] eta 1916ko Pazko Altxamenduko martiriek izango dute. Bigarren hori Britainiaren aldeko Eusko Elkarte Abertzaleak kondenatu egin zuen. Gallastegik Irlandako esperimentziaren zati handi bat ekarri zuen, antolaketa-ereduetatik hasi eta aspektu ideologikoetaraino, Independentzia Gerraren epika iraultzailea eta armatua bere eginez, nahiz eta gero *aberri-tarrek* sekula praktikan jarri ez.

EAEk nazioaren ikuskera liberal eta errepublikar modernoa hartu zuen. Proiektu boluntarista gisa ulertzen zuen, foru-aldarrikapena lurperatuz eta Euskadiren ikuspegi bateratua ohiko konfederalismoaren lekuan jarritz



Eusko Abertzale Ekintza
(EAE-ANV) bandera

Kontuak kontu, laster abertzaletasunaren bi familien arteko konfuentzia nagusitu zen berriro, 1930ean Aberrik eta Elkartea Nazionalistak EAJ gisa bat eginez. Doktrina-kontzesioak egiteak ekarri zuen *aberritarrekiko* konpromiso berriaren aurrean, Eusko Elkartea Abertzaletik etorritako sektore batek ordura arte ezagutu gabeko bilakaera ideologiko bati ekin zion, aranismoarekin erabat hautsi zuena. 1930eko Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) sorreraz ari gara, nahiz eta aurrekari gisa Landeta eta Ulazaren Eusko Alderdi Abertzale Errepublikano iragankorra eduki. EAEk berrikuntza garrantzitsuak planteatu zituen^[10].

Lehenengoak, akonfesionaltasunak, kausa nazionala eta integrismo erlijioso banandu zituen, nahiz eta militante gehienak katolikoak izan. Horrekin batera, nazioaren ikuskera liberal eta errepublikar modernoa hartu zuen. Proiektu boluntarista gisa ulertzen zuen, foru-aldarrikapena lurperatuz eta Euskadiren ikuspegi bateratua ohiko konfederalismoaren lekuan jarritz. Bitxia bada ere, EAEren espiritu liberal eta modernizatzailearekin kontraesanean, Ortueta bezalako figurak egon ziren; eta, foruen oztopoa gainditu nahian, Campionen ondora itzuli eta Nafarroako Erresuma erreferentzia historizista gisa berriz hartu zuen.

EAE alderdi errepublikar txiki moderatu bat izan zen, Espainiako alderdi ezkertiarrekin aliatzeko joera zuena, bide estatutista aztertzearen aldekoa izaki. *Ekintzaileek*, bereziki, hiriko klase ertaineko jendea izan zuten inguruan, baina gero eta bertako proletario gehiago batu zitzaizkien, eta lehenbizikoz etorkinei ere ireki zitzaizkien. Minimo errepublikar batzuen baitan, liberalen eta handitzen ari zen langile sektorearen arteko lerro-borroka garatu zen. Lehia horren ostean, fundatzaile askok alderdia utzi zuten. EAEk 1936an programa independentista eta sozialista hartu zuen, baina ez iraultzailea, ezta marxista ere, eta Euskal Alderdi Laborista bihurtzeko proiektua zuen.

EAJn eztabaida piztu zen berriz sabinar ortodoxoekin, eta berriro ere Gallastegiren zuzendaritza pean gertatu zen hori. Orduan, aranistek *aberritarren* garaian baino indar erlatibo txikiagoa izan zuten, eta nazionalismo ofizialaren aurrean isolatuta geratu zi-

ren, baina 1934an harekiko behin betiko haustura ekarri zuen determinazio handiagoa erakutsi zuten, inoiz alderdi bihurtu ez ziren arren. Bizkaiko Mendigoizale Batza eta sektore horri izena eman zion *Jagi-Jagi* astekariaren inguruan bildu ziren^[11]. Bertan, *mendigoizaleek* euren tesiak aurkeztu zituzten, eta Aberriren planteamendu kristau sozializatzaileak garatu. Hasiera batean, Gudariren eskutik etorri ziren proposamen horiek, eta beranduago Trifon Etcheberria *Etarte*-ren^[12] edo Manu de la Sota *Txanka*-ren eskutik, zeina antimaketismoa gainditzeko ahaleginean aritu zen. Beren antiespainismoarekin koherentzia planteatu zuten berrikuntza estrategikoa euskal indarrek soilik osatutako Fronte Nazional independentista izan zen, behin eta berriz porrot egin zuena.

Doktrinari dagokionean, alde garrantzitsua egon zen errepublikanismo *ekintzailearen* eta aranismo *mendigoizalearen* artean, eta, hori, erlijioaren edo nazioaren arloan nabarmendu zen gehienbat. Halaber, biak izan ziren nazionalismoaren oinarrien barruko gizarte-polarizazioaren isla, eta sektore proletariatuak gailentzen hasi ziren. Jakina, ez zuten jarrera klasistekin egin, jarrera burges-txikiekin baizik. Euren antikapitalismoak klase-borroka gainditu eta harmonizatu nahi izan zuen, eta independentzia nazionala jabetza txikian oinarritutako justizia sozial batekin erlazionatu zuten. Agintari burges nazionalistekiko subordinazio eza Eusko Langileen Elkartasunean (ELA) ere gertatu zen zerbait da —bi prozesuek elkar elikatu zuten—, eta sektore obreristagoak izaera propioa hartzen hasi ziren *solidarioen* artean^[13].

Diferentziak alde batera utzita, antzeko garaian, paraleloki eta ez kasualitatez, beste indar batzuk ibili ziren nazionalismoaren unibertsoaz haratago. Komunismoaren agerpenaz ari gara. Errusiako Iraultzaren garaipena eta boltxebikeek zapaldutako herriak askatu izana faktore erakargarriak izan ziren nazionalista askorentzat, eta, horregatik, ez da zentzugabea eragin nahiko zuzen gisa planteatzea^[14]. Beste kontu bat izan zen, euskal nazio auziari zegokionez, langile mugimendu sozialista eta anarkistak zuten sektarismo historikoaren gaindipena –eta horren ifrentzua, aranisten nazionalismoaren antisozialismo erasokorra–, nahiz eta euskal komunismo gaztea aitzindaria izan saiakera horretan, bai teoriarik, bai praktikan^[15]. Hori auzi konplexu eta zirrargarria da inondik ere, baina korronte nazionalista historikoen laburpena xede duen idatzi honetan ez dugu tarterik gai hori jorratzeko.



Mendigoizale batailoia



Eli Gallastegi



Jagi-Jagi aldizkariaren lehenbiziko zenbakia 1932ko irailaren 17an Angel Agirretxeren zuzendaritzapean agertu zen

Nazionalismo historikoaren ezaugarria da gauza orok jatorrizko doktrinaren inguruan bueltak ematen dituela, izan onerako ala txarrerako

HAUSTURAK ETA JARRAIKORTASUNAK

Ikusi dugunez, euskal nazionalismoaren historia kontraesankorra da; tentsioen eta adiskidetzeen arteko kontakizun bat, hausturen eta jarraitutasunen artekoa. Dena dela, nazionalismo historikoaren ezaugarria da gauza orok jatorrizko doktrinaren inguruan bueltak ematen dituela, izan onerako ala txarrerako. Dela mugimenduari gorputz ideologikoa emateko; dela doktrina hori beste helburu batzuetarako instrumentalizatzeko; dela behin eta berriz abiapuntura itzultzeko, berrikuntzak berrikuntza; edo, azken buruan, hura gainditzen saiatzeko. Nazionalismoaren joeren bilakaera ideologikoen atzean, jakina, aldaketa sozialak egon ziren. Baina, harrigarria bada ere, hasierako doktrina horren bitartez gertatu ziren ia beti, nahiz eta aldiro momentuko interes partzial jakin batzuetarako balio izan. Anakronikoa dirudien arren, begi bistakoa da ez zela berrikuntza isolatu bat izan, diskurtso igualitaristen edo foruzaleen genealogia luzea ezagututa.

Lehenengo Aberri
Egunen kartelak

Bilbo, 1932

Donostia, 1933



Gasteiz, 1934



Iruñeko 1935ko Aberri
Eguna Euzko Eguna
izenpean ospatu zen,
debekua saihesteko

Disidentzien kasuan, aurrez ahulak baziren ere, erbesteak eta diktadurak kinka larrian jarri zituen, eta haien garapena eten egin zen

Aberri Eguna, Gasteiz, 1934



Espainiako Gerra Zibilak markatu zuen garai horren amaiera, hura euskal lurretara iritsi izanak, zehazki –horri lotutako historiografia guztia ikusi besterik ez dago–. Horrek eten handia ekarri zuen aurreko joerekiko, batez ere, disidentzien kasuan. Izan ere, aurrez ahulak baziren ere, erbesteak eta diktadurak kinka larrian jarri zituen, eta haien garapena eten egin zen. EAJ-ren nazionalismo ofizialaren kasuan, haren antolaketa zuen egonkortasunak eta hegemonia luzeak bermatu zuten jarraipen hori. Egiari zor, hamarkada batzuk geroago ETAk gorpuztuko zuen nazionalismo berriaren agertzea; hein handi batean, hegemonia horren ukazioaren^[16] ondorio izango zen. Be-launaldien arteko arrakala eta kontaktu urriak –batzuk egon ziren, Gallastegi eta Etxebarrietaren arteko lotura mitikoa, kasu– ordezkatu egin ziren, erreferentzia berrien bilaketarekin. Horrek, ordea, ez du esan nahi errepikatzen zen elementurik ez zegoenik. Berez, nahiz eta oharkabean izan, hainbat elementu errepikatu ziren. Antolamendua eta ideologia jarraitutasuna, beraz, ez dira sinonimoak.

Gaur egunera arte jauzi eginez gero, gauza asko gertatu direla ikus daiteke. Zalantzarik gabe, gizartea aldatu egin da eta nazionalismoa ere bai. Nazionalismo iraultzailearen sorrera, garapena eta gainbehera, tarteko. Hori horrela izanagatik, gaur-gaurkoz, diskurtso nazionalistetan –ofizialak nahiz ez oso ofizialak– behin eta berriz azaleratzen diren garai bateko elementuak ikus ditzakegu. Immigrazioaren gaitzespena, historizismora jotzea edo euskal kapitalismo justu baten balizkotasuna dira horietako batzuk. Historiari erreparatzen badiogu, honezkero ia dena asmatuta dagoela konturatuko gara. ●



BIBLIOGRAFIA

- [1] LÍNEA PROLETARIA. «El ciclo político de la revolución burguesa española (1808-1874)». *Línea Proletaria* (3), 19-44, 2018.
- [2] DÍEZ MEDRANO, Juan. *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismos en el País Vasco y Cataluña*. Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1999.
- [3] BELTZA. *Del carlismo al nacionalismo burgués*. Txertoa, Donostia, 1978.
- [4] ERIZE ETXEGARAI, Xabier. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863-1936*. Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1997.
- [5] MADARIAGA ORBEA, Juan. *Apologistas y detractores de la lengua vasca*. FEDHAV, Donostia, 2008.
- [6] OTAZU LLANA, Alfonso De. *El «igualitarismo» vasco: mito y realidad*. Txertoa, Donostia, 1973.
- [7] GOIOGANA, Iñaki. «¡Por la civilización cristiana! ¡Por la libertad de la patria! ¡Por la justicia social!» *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria* (33), 46-59, 2010.
- [8] LORENZO DE ESPINOSA, José M^a. *Gudari: una pasión útil*. Txalaparta, Tafalla, 1992.
- [9] LORENZO DE ESPINOSA, José M^a. «Influencia del nacionalismo irlandés en el nacionalismo vasco. 1916-1936». *XI Congreso de Estudios Vascos. Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*, 239-247, 1991.

- [10] RENOBALLES, Eduardo. *ANV, el otro nacionalismo*. Txalaparta, Tafalla, 2005.
- [11] RENOBALLES, Eduardo. *Jagi-Jagi, historia del independentismo vasco*. Ahaztuak 1936-1977, Bilbo, 2010.
- [12] LORENZO DE ESPINOSA, J.M. y RENOBALLES, E.. *Trifón Etxebarria 'Etarte'. 1912-1998. Biografía de un abertzale*. Consultado en: <https://borrokagaraia.files.wordpress.com/2013/02/etarte-jmle.pdf>
- [13] ANSEL, Darío. *ELA en la Segunda República: evolución sindicalista de una organización obrera*. Txalaparta, Tafalla, 2011.

- [14] DÍAZ ALONSO, Diego. *Disputar las banderas. Los comunistas, España y las cuestiones nacionales (1921-1982)*. Ediciones Trea, Gijón, 2019.

- [15] ELORZA, Antonio. «Cuestión nacional y clase obrera en Euskadi. Análisis de un conflicto histórico». *IPES ikastaroak, formazio koadernoak* (1), 45-53, 1980.

- [16] BELTZA. *El nacionalismo vasco en el exilio. 1937-1960*. Txertoa, Donostia, 1977.

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- BELTZA**. *El nacionalismo vasco. 1876-1936*. Txertoa, Donostia, 1974.
- ELORZA**, Antonio. *Ideologías del nacionalismo vasco, 1876-1937. De los euskaros a Jagi-Jagi*. Haranburu, Donostia, 1978.
- IPES**. *Nacionalismo y socialismo en Euskadi*. IPES, Bilbo, 1984.
- LETAMENDIA**, Francisco. *Historia de Euskadi, el nacionalismo vasco y ETA*. Ruedo Ibérico, París, 1975.
- DE PABLO**, S.; DE LA GRANJA, J.L.; MEES, L.; CASQUETE, J. (coord.). *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Tecnos, Madrid, 2012.



Argitalpena
2022KO ABENDUA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia